



ARGIA



DONOSTIA ERRAUSKETAREN HIRIBURU?

CORRESCALES:
LANGILE BORROKARAKO
DIRU-FUNTSA HELBURU

LARRUN: KOMUNAREN
IDEIA GURE BIZITZAK
EGITURATZEKO

EMAKUME TRANSEXUALAK
JOKO OLINPIKOETAN:
HASTERAKO SUSMOPEAN



EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
☐ ARGIA ASTERO, hilean 12€ baino ez.	Urteko prezioa
☐ ARGIA HAMABOSTERO, hilean 7€ baino gutxiago.	Urteko prezioa
☐ ARGIA HILERO, hilean 4€ baino gutxiago.	Urteko prezioa



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 June Fernández
- 20 Irati Elorrieta
- 21 Jakes Bortairu
Edu Zelaia
- 22 Pako Sudupe



Bilbotik abiatu zen Correscales, prekarietatearen aurkako lasterketa, otsailaren 18an. (ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR)

- 40 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
JOANA MASÓ
- 54 BERANDUEGI

SAKONEAN

- 14 | Aritz Ganboa: "Herri asko desagertu dira mundutik eta Euskal Herria ere desagertu daiteke" / Reyes Ilintxeta
- 24 | Añorga + Zubietza: Donostia, Errausketaren Hiriburua? / Pello Zubiria Kamino
- 30 | Kazetariak mehatxupean: Turkiak ez du traidorerik nahi / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 32 | Joko Olinpikoetan lehenengoz emakume transexualak aritzeak hautsak harrotu ditu / Jon Torner Zabala
- 34 | 'Bost truke' liburua: Euskara jendeak Andeetan, Kurdistanen eta Serbian / Miel A. Elustondo
- 36 | Correscales: Elkartasunaren eskaileran koska bat gora / Unai Brea
- 44 | Peio Agirre: "Kritikaria ezin da inolaz ere xaloa izan" / Danele Sarriugarte Mochales

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Aier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Prekarioen abordatzea

‘Correscales’ korrika herrikoiak prekaritatearen ertz guztiak salatu ditu Bilbotik Bartzelonara bidean. Otsailaren 19an Donostian izan zen eta udaletxean prestatutako harreran hitz gordinak eskaini zizkieten udal agintariei, eta bereziki Eneko Goia alkateari: “Non zineten gu krisiaren gordinean lanik gabe ginenean? Zorteko zarete prekaritatea etxeko ateen atzean ezkutatu izanaz, baina honezkero badakigu ez gaudela bakarrik. Jendea lotsa galtzen ari da, aldez aldatu eta zuena bilakatuko dugu ahalkea.”

Argazkia: Dani Blanco



“Matxismoaren kontrako ustezko adierazpenak arrazismoa bultzatzeko baliatzea gogorki salatzen dugu”

Gasteizko elkarte ugari

argia.eus/multimedia



Barruko arrastuak

Frankismo garaitik gaur egunera arte atxilotu dituzten herritarren tortura testigantzak batu ditu Oñatiko Euskal Memoria taldeak, *Barruko Arrastuak* dokumentalean.



Elikadura, produktu finantzario

Elikadura negozio bilakatu da inoiz baino gehiago, eta horrek zuzenean kolpatu ditu mundu mailako nekazari guztiak.

Elizak bere egin dituen ondasunak itzultzea eskatu dute

Iker Oñate Aiastui

@iker_onate

Frankismo garaiko Hipoteka Legea baliatuz, Elizak bere izenean jarri dituen Bilboko ondasunak eskatzeko saiakera hasi dute EH Bildu eta Goazen Bilbao alderdiek. Mozioa aurkeztuko diote Udal Gobernuari. Eusko Legebiltzarrak gaiaren inguruan landutako txostenaren harira dator eskaria.

Olabeagako Santa Ana eta Abusuko Artzain Onaren elizak Eusko Jaurlaritzak landutako zerrendan ageri dira. “Auzia oso lotuta dago Eliza Katolikoak izan dituen pribilegioekin”, azaldu du EH Bilduko zinegotzi Alba Fatuarte Info7 irratian.



ZARATEMAN / WIKIMEDIA

Elizak ondasun horiek berreskuratzeko aukera izango lukeela azpimarratu du Fatuarte: “Bilboko elizbarrutiak ondasun horiek berriz ere bere izenean jartzeko zilegitasuna izango luke, baina bestelako prozedura jarraituta, eskualdatze publikoko zergak ordainduta, esaterako”. Bestalde, zinegotziak argitu du mozioa ez dela “Eliza Katolikoaren kontrako afera”.

Elizak frankismo garaitik datorren Hipoteka Legea baliatu izan du ondasunak bere izenean jartzeko. Ostera, 1998an, Jose María Aznar Espainiako gobernuburu ohiak legea moldatu zuen. Ordutik, erlijio eraikinak ez ezik, frontoiak eta gisakoak ere bere egin ahal izan ditu Eliza Katolikoak.

“Baztango Aroztegiko UGPSaren inposizioa modu akritikoan bere gain hartu du Gobernu berriak”

BEGOÑA ZABALA, XABIER MORRAS, LEKAROSKO AROZTEGIAREN AURKAKO SINATZAILEAK

Pertsona ezagun ugari atxiki zaizkio Lekarozko Aroztegiaren aurkako manifestuari. Zabala eta Morrasek irakurri dute manifestua: “Nafarroan jauntxokeria eta negozio publiko, ilun eta neurrigabeko hamarkaden ondoren, deigarria da aldaketa sozial eta politikoaren aitzindari izateko lorturiko gobernu batek Aroztegiko UGPSaren inposizioa modu akritikoan bere gain hartu izana”. UGPSa geldiarazi eta Baztanen herri-galdeketa loteslea egitea eskatu dute. **2016-02-22**



PLASTIKO KUTSADURA OZEANOAN

3.000 lagunentzako itsasontzi batek zortzi tona zabor solido sortzen du astean, eta gehiena itsasora doa.

1.000.000 ITSAS TXORI

hiltzen da urtero
plastikoaren erruz.



Alga kilo bakoitzeko 6 kilo plastiko daude itsasoaan.

Zooplaktona baino ugariagoa ere bada, 40tik bateko proportzioan.

Itsasoaren eta eguzkiaren eraginez, gero eta partikula txikiagotan hausten da plastikoa, baina inoiz erabat desagertu gabe.

Ozeanoan dagoen plastikoaren erdia baino gehiago milimetro bat baino txikiagoa da.

Ozeanoetako kutsadurak gutxienez 267 espezieri eragiten die.

Itsasoko plastikoak tokiz aldatzera behartzen du fauna, eta habitat berrietan espezie inbaditzaile bihurtzen dira.

Plastiko zati handiek marmoken antza dute, zati urratuek txipiroiena eta zati txikiek arrain arrautzena.

Hawaiin hilda aurkitutako itsas dortoka batek 1000 plastiko pieza baino gehiago zituen urdail-hesteetan.

**100.000 UGAZTUN
ETA ITSAS DORTOKA**
hiltzen ditu plastikoak urtero

Bost plastiko espiral erraldoi daude ozeanoetan, handiena Pazifikokoan dago, Hawaii uharteetatik harago (2.200 x 800 km²).

Badira beste espiral txikiago batzuk ere, Alaskan eta Antartikan.



Plastikoek elementu toxikoak dituzte, baina gainera, toxina gehiago xurgatzen dute uretan. Arrainek elikagai katean sartzen dituzte.

OZEANOETAKO HONDAKINEN %90-%95 PLASTIKOA DA. OZEANOETAKO PLASTIKOEN %70 ITSAS HONDOAN DAGO.
ITSASERTZA DUTEN 192 HERRIALDEK 2.500 MILIOI TONA HONDAKIN SOLIDO PRODUZITZEN DUTE. HONDAKIN HORIETARIK 275 MILIOI TONA, PLASTIKOA DA. 2010EAN 8 MILIOI TONA PLASTIKO BOTA ZIREN ITSASORA.



Goian, Estremerako kartzelan (Madril). Eskuineko argazkian, Algeciraseko (Andaluzia) espetxe aurrean egin zuten ekintza.



EZKER ABERTZALEA

4.000 lagun, 40 kartzela, “euskal presoak etxera” aldarrikatzeko

Ane Urkola Agirrezabala

@irrikaz

Euskal presoek ezartzen zaizkien “salbuespen egoerak bukatzea” eskatu zuten 4.000 lagunek joan den asteburuan. Guardia Zibilak kontrol ugari ezarri zituen, baina espetxe guztietara ailegatzeko lortu zuten.

75 autobusetan sartutako 4.000 euskal herritarrak euskal presoak dauden Espainiako eta Portugalgo espetxe guztietara iritsi ziren, baita Britainiako Rennes kartzelara ere –Lorentxa Gimón dago bertan, larriki gaixorik dagoen presoak–.

Protesten bidez eskatu zuten presoak Euskal Herritarria, gaixorik dauden presoak aske uztea, eta euskal presoekin legedi arrunta erabili ahal izatea onura penitentziarioak lortzeko. “Ezinbestekoa da askatasuna, demokrazia eta kanpoko inpo-

siziorik gabeko erabakiak lortzeko”, adierazi zuten kartzelen atarrietan irakurritako testuan. “Euskal presoek etxeratzea lortzeko erabateko konpromisoa dugu; izan ere, ez gara aske izango haiek gabe, eta beraiek ez dira aske”.

Guardia Zibilaren kontrolak

Guardia Zibilak oztupoak jarri zituen hainbat kartzelara joan ziren euskal herritarrei; kontrol ugari ezarri zituzten errepedetan, eta Ezker Abertzaleak salatu du Guardia Zibilak hainbat lagun identifikatu zituela espetxetako kanpoaldeari argazkiak ateratzeagatik.

Dena den, kartzela guztietara ailegatzeko lortu zuten protestan parte hartu zutenek, eta euskal presoek aukera izan zuten elkartasun keinuak entzuteko, kartzelen atarrietan egin ziren ekitaldien bidez.

EKONOMIAREN TALAIAN

Austeritatearen kontrako “B plana”



Juan Mari Arregi

Kapitalismo basatia –gaur egun neoliberalismo deitzen dioguna–, Europar eta Europar Batasuneko instituzioetan dago. Bozetan hautatuak izan ez direnak (multinazionalak, bankuak, inbertsio funts handiak...) euren lobbyekin eta presoarekin EBren batzordeak kontrolatzen dituzte, euren intereseko araudi eta legeak markatuz. Kapitalaren edo merkatarien Europa izenez ezagutzen dugun horren parte dira. Presio talde horiek inposaturiko doikuntza politiken ondorioak langileek eta herritarrek jasaten dituzte: langabezia eta txirotasuna, soldata eta pentsio eskasak, murrizketak osasungintzan, hezkuntzan eta menpekotasun laguntzetan...

Errealitate horren aurrean, Europako ezker politikoa, jendartea eta sindikatuak isolaturik eta elkartu gabe egon dira. Greziak 2015ean erakutsi zuen EBN konkista sozialak defendatu ahal izango ditugula soilik lortzen badugu mugaz gaindiko mobilizazioak sortzea. Zentzu horretan, onuragarriak dira austeritatearen kontrako Europako “B plana” eraikitzeke egiten ari diren saiakerak. Lehen pausoak Alemaniaren eman dira, Varoufakis greziar ministro ohiaren eskutik, DIEM25 proposamenarekin. Pasa den asteburuan Madrilen izan du jarraipena proposamen horrek, eta bertan euskal ordezkariak ere hartu dute parte.

Zutabe hau idazten ari garenean, oraindik ez dakizkigu Madrilgo europar gailur alternatibo horren ondorioak. Ea denok batera urratsak emateko oinarriak jartzen diren, eta Europar Batasunaren politikek eta kapitalismoak inposaturiko austeritatea, desoreka, pobrezia, langabezia, iruzur fiskala eta abarren kontra elkar hartuta borrokatzen hasten garen.



Garoñaren aurkako pankarta jarri duten Greenpeaceko 6 kide atxilotuta

MADRIL. Greenpeacek protesta egin du Espainiako Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluaren Madrileko egoitzan, Garoña berrirekitzearen aurka. Bi pankarta zintzilikatu ditu eraikinean, “Stop nuklearrak” eta “Stop Garoña” mezuekin. Sei kide atxilotu dituzte ekintza horregatik. Erakunde ekologistak salatu du zentral nuklearra berriz ere martxan jarri nahi duela PPrentz Jarduneko Gobernuak: “Segurtasun Nuklearreko Kontseilua zentralaren aldeko txosten bat sortzeko ahaleginean dabil. Teknologia zaharkitu eta arriskutsu batekin ari dira jolasean, interes politiko eta ekonomikoak bultzaturik”. Horrez gain, Greenpeaceko beste 30 kidek beren burua kateatu dute Europar Batasuneko eta AEBetako ordezkari-tzek TTIP akordioaren hamabigarren negoziazio-saioa hasi behar zuten aretoko sarreran.

Abian da LGBTBI dokumentazio zentroa

Argia

@argia

Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hainbat LGBTBI elkartek dokumentazio zen-tro birtuala osatu dute. Besteak beste, 1969tik hasita munduko eta etxeko hainbat gertaera historiko jasotzen dira, mugimenduaren testuingurua osatuz.

Helburuak

Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Interse-xualen (LGBTBI) mugi-mendua ezagutarazi nahi da; eta hainbat elkartek eta eragilek urtetan haien eskubi-deak errespetatzeko egin duten borroka ere azaldu nahi da.

Omenaldia

Dokumentazio zen-troa LGBTBI mugimen-duaren borrokari eta orientazio edota identitate sexualaga-tik jazarpena jasan duten pertsonen egindako omenaldia da, kideek azaldu du-tenez.

Parte-hartzaileak

Elkarlanean aritu dira honakoak: Eusko Jaur-laritzak, EHGAM, Aldar-te, Errespetuz, Gehitu eta Guztiok. Gaur egun Hego Euskal Herrian dauden taldeen ze-rrenda eta munduko beste hainbatena ere aurki daiteke.

HEZKUNTZA



20

ikastetxe gasteiztarretan, jatorri atzeritarra duten ikasleak %30 baino gehiago dira; horietako lautan %80 baino gehiago, eta hirutan %50. Ikasle jakinen ghetizazioa salatu nahi izan du Arabako Guraso Elkarten Federazioak.

1

Hogei ikastetxe horietatik, bakarra da itunpekoa. Besteak publikoak dira.



METROAREN AURKA EKINTZA ASTERO

Sator Alaia Donostiako metroaren aurkako plataformak hainbat ekimen iragarri ditu. Informazioa zabaltzea eta herritarrek mobilizatzea da taldearen xedea. Besteak beste, metroaren proiektua geldiaraztea eskatzeko elkarretaratzeta egingo dute atero.



IRREGULARTASUNAK SINFONIKAN

Abuztuaren 31n Pablo Sarasate Fundazioa desegingo du Nafarroako Gobernuak. Kontuen Ganberak Orkestra Sinfonikoan izandako irregulartasunen ondorioz hartu dute erabakia.



43 URTE ISOLATUTA

Aske geratu da Albert Woodfox, Pantera Beltz ohia eta Amnesty Internationalen arabera, AEBetako historian isolamenduan denbora gehien egin duen presoak. 43 urte eta 10 hilabete egin ditu itzalean berak ukatu egiten duen krimen batengatik.

Cordovillako Brigadaren tiro hotsa



Xabier Letona

@xletona

“EUSKARA ESKOLETARA eramateko lasterketa neurrigabea da hau”, zioen Enrique Maya UPNko Iruñeko alkate ohiak haur eskolen afera dela eta. AFAPNA sindikatu nabarristak helegitea jarri dio Iruñeko Udalak hartutako erabakiari –euskarazko bi haur eskola gehiago jartzea, lehen 17tik bi, orain lau–, Udalak halakoetarako eskumenik ez duela argudiatuta.

Plangintza berriak bi eskoletako haur, guraso eta langileei eragiten die eta hauek Iruñeko Udalaren aurrean egin dute protesta, honen “inposizioa” salatzeko. Iruñeko alkatetza sostengatzen duten indarrak ados daude: EH Bildu, Geroa Bai, Aranzadi eta Ezkerra. Baina oraingoan ere ez da ika-mikarik falta izan, Iruñeko Ahal Duguk –Aranzadiko partaide da hau– kritika zorrotza egin zion Udalaren erabakiari. Egun batzuetara, ordea, Nafarroako Ahal Duguk zuzenketa egin zuen Euskalerrira Irratian Ainhoa Aznarez Legebiltzarreko lehen-dakariaren ahotik: euskarazko bi eskola gehiagorekin ados daude, prozedura da kritikatzeko dutena, gaia plaza publikora langileengana baino azkarrago iritsi delako (haurreko eskolako arduradun batek Udalaren asmoak filtratu zizkion prentsari).

“Izan euskaldun nahi baduzu, baina ez zipriztindu nire pribilegioak, nire diruak, nire eskubideak, nire erosotasuna...”

Hezkuntza Saileko Lan Eskaintza Publikoren (LEP) frontea ere oraindik ez da guztiz itxi, Foru Gobernuak bere erabakietan asmatu gabe jarraitzen du eta. Zerrenda bakarra ez zuen onartu Hezkuntza Sailak, irakasle euskaldunen aurkako diskriminazioak aurrera segitzea ahalbidetuz. Hori konpentsatzeko, LEParen azterketa egun desberdinetan egitea erabaki du (orain arte egun eta ordu berean zen), euskaldunak gaztelaniakora ere aurkezteko aukera izan dezan. Total, euren pribilegioei eusteko protesta egin duten bi zerrenden aldekoek barrunba eragin dutela berriz, eta oraingoan arrazoiz gainera, euskaldunek haiek baino aukera bat gehiago izango baitute azterketa gainditzeko.

BITARTEAN beste fronte bat agertu da. Iruñerriko Sarriguren herriko eskola publikoa bilakatu da jo puntua. D eredua eta A-G ereduak banatzeko eskaria egin du D ereduko hezkuntza komunitateak eta Hezkuntza Sailak erabaki behar du orain. Cordovillako Brigadak berriz tiro, oraingoan ere Ezkerraren laguntzarekin: euskaldunek hizkuntza segregazioa egin nahi dute. Noainen ere berdintsu gertatzen ari da.

D ereduko komunitatearen argudioa hizkuntza murgiltzea areagotzea da, egoera minorizatuan bizi den euskaldunak samur ulertuko duen arrazoa. Euskaraz ondo ikasi eta euskaraz bizitzeaz arduratua ez dagoenarentzat, bazterkeria da, bizikidetzaren aurkako neurria. Eta artilleria gori-gori jarri dute berriz ere. LEParen afera errentagarria izan zaie eta ez dute aukera galdu nahi. Euskaldunak ahulak dira eta hori baliatu behar da. Ez zaie arrazoirik falta.

Eztabaidaren zurrumbiloan lehenengo murgiltzen denarentzat irudi luke

Nafarroan hizkuntza dela eta bereizitako lehen zentroa dela, baina 1995etik hasi eta gaurdaino zentro ugari irizpide horretan oinarrituta banatu dira: Biurdana, Eunete, Iturrama, Mendillorri, Atarrabia... Hasieran UPN beldur izan zen D ereduaren kutsatze arriskuaz eta berak bultzatu zituen banaketak. Geroago D ereduko komunitateen eskariz egin da, ikusten delako nahasian gaztelaniak euskara maila guztietan irensten duela. Euskaraz ere bizi nahi duenak primeran ulertzen du gertatzen dena: ulergarritasunaren izenean dena da gaztelaniaz irakasleen klustroan, eskola kontseiluan, guraso elkarteetan, eskolaz kanpoko jardueretan...


GORROTOTIK ARI DIRENEN tiroak ondo identifikatzen dira, botereetsuak dira eta zauri sakonak eragin ditzakete. Indiferentziaren lubakikoak ez dira hain agerikoak, baina luzerara seguruenerik haiek kaltegarrienak. Eta zaletasunetik ere egiten da tiro, batzuetan ohartu gabe; min gutxiago egiten dute, baina hauek ere berdina dira hilgarri.

Indiferenteen esparrua ukitu du euskaldunaren urrats txikiak Nafarroan eta erantzuna tinkoa da: “Izan euskaldun nahi baduzu, baina ez zipriztindu nire pribilegioak, nire diruak, nire eskubideak, nire erosotasuna...”. Zaratarik ez zaio komeni euskarari. Izquierda-Ezkerako lerroetan, esaterako, maiz entzuten da halakorik. Hau da, urte luzez gurasoek euskarazko haur eskolak izateko egin mobilizazioek ez dutela zerikusirik orain Udalak euskarazko bi haur eskola irekitzearekin. Hau da, honaino iritsita, zerrenda bakarrarena ahaztu behar dela orain?

Min bai, baina poza ere ematen du Cordovillako Brigadaren tiro hotsa entzuteak. Bizi-bizi gauden seinale. ■

«CER diOTE adITUEC hizCUNTZA VATEN ezARTCEAZ, CEINAREKIN hain adIN
chiquian lotura aFectivo, CULTURAL CEIN SOCIALIC ez BAITAGO?»
aranzadi - AHAL DUGU IRUÑEA

funciona



ça marche



CK

Nire 'Smartphone'ak poeta txinatar prekariora darama zirkuituetan



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Blackberry, iPad, iPhone edo Kindle deitu, Apple, Microsoft, Sony, Amazon nahiz Samsungi erosirik errutinazko bilakatu zaigun tresneria elektronikoko berri gehienak Txinako lan ia esklaboz eginik daude. Orain, gainera, robot berriek sortutako konkurrentzia berriarekin mehatxatzen dituzte obrero txinatarrek, fabriketako lan baldintza zanpatzaileak gatazkarik gabe onartu ditzaten.

Xu Lizhik 24 urterekin bere buruaz beste egin zuen Txinako Shenzhen hirian, 2014ko irailaren 30ean. 2010etik Foxconn konpainian suizidatu diren doze-na eta erditik Lizhi da ezagunena munduan, bere ezin bizia poematan idatzirik utzi zuelako.

Zutik lokartu naiz titulua daraman poeman dio: "Begi aurrean lausotu zait papera. / Altzairuzko lumaz zizelkatu dut beltz irregular bat / laneko hitzez betea. / Atelierra, muntatzeko katea, makina, fitxatzeko txartela, ordu estrak, soldata... / Otzan izateko prestatu naute. / Ez dakit nola egin oihera edo matxinatu, / kexatu edo salatu. / Leher egin arte isilik sufritzen baizik ez dakit. / Hona lehenbizikoz iristean / hamargarren eguneko nomina grisa baino ez nuen desio. / Horregatik kateatu naiz txoko eta hitzotara, / Uko egin faltatzeari, uko gaixotzeari, uko nire arazo pertsonalei. / Uko berandu iristeari, uko goiz alde egiteari. / Muntaketa katearen mesederako altzairua bezain tinko eusten diot eta nire eskuek hegan egiten dute. / Zenbat gautan lokartu ote naiz zutik?"

Landa eremutik iritsia zen Xu Lizhi munduko tresneria elektronikoko hipermoderno gehiena ekoizten den Shenzhenera. Liburuei lotutako zerbaitekin nahi zuen jardun, baina Foxconn konpainiatik kanpo ez zuen are miseria larriagoa baizik aurkitu. Asteazken zehar bizileku zuen konpainiaren logela kolektiboko leihotik bota zuen bere burua.

"La machine est ton seigneur et ton maître" (Makina da zure jaun eta jabe) liburuan bildu berriak dituzte Foxconnen hiru langileren esperientziak. Xu Lizhiaren poema sortaren ondoan, bigarren lekukotasuna Yang izeneko ikasle langile prekario bilakatuarena da.

Hirugarrenik, Jenny Chan soziologo eta militanteak bildu du Lizhi bezala baserri eremutik Foxconnen lanera joandako Tian Yu emakume gaztearen esperientzia latza; suizidio ahalegin batetik bizirik baina paralitiko ateratu da. Chanek azaldu ditu horrelako dramak ahalbideratu dituzten baldintzak: Foxconn erraldoiaren kudeaketa sistemak, Txinako estatuaren konplizitatea ugazabekiko eta sindikatuen ezintasuna.

Xu Lizhi, Tian Yu edo Yangen kontakizunek agerian uzten dute gure bizimodua aldatu duten teknologia berrien mundu ludiko eta kolorezkoaren ifrentzua: urruneko fabrika erraldoiak non leherrarazten baitituzte milioika obrero Appel, Microsoft, Sony, Amazon, Samsung eta sektoreko beste konpainia handien azpi-kontratatzaleek.

Liburuaren epilogoan, teknologia berrien apologeten alde eskizofreniko hori azpimarratu du Celia Izoard itzultzaile eta kazetari frantsesak *"La classe créative des campus et le zoo des manufactures"*, erkatuz ekonomia digitalaren meka den Kaliforniako ametsak eta Txinako langileek bizi duten infernua.

1974an sortua, Foxconnen -Hon Hai Precision Industry- milioi bat langile



baino gehiago dauzka, munduko hiru garren handiena da langile kopurutan, eta planetako elektronikaren erdia berak ekoizten du. Marka handi guztiak ditu bezero Foxconnen. Shenzhenen, Longhua hirian bakarrik 300.000 obrero dauzka beharrez hiru kilometro kartratuko eremuan, hileroko 500 euro arteko soldatekin.


15 fabrika, logela kolektibozko 18 eraikin, suhiltzaile eta telebista kate propioak, merkatal gunea... Astearen 6 egunetan egunean 12 orduz egiten da lana hemen, eta logelen leihak burdinazko sarek babestuta daude, langileen suizidioen hotsak munduan zabaldu zirenetik.

Giza esklaboa baino hobe robota

Kalifornian, Googlek egoitza daukan Mountain View campusean *brainstormingak* plastikozko pilotaz betetako piszina egiten omen dituzte. Gimnasioak zabalik gau eta egun. 30 jatetxe, denak doakoak... bestela ere urtean 100.000 euro irabazten dituzten eliteko enplegatuentzako.

Konposta egiten da hemen honda-kin organikoekin, elikagaiak *bio* dira, haztegieta gizendutako arrainik ez... izan Appleren edo Silicon Valleyko beste korporazioen langile pribilegiatuen istorioetan laudatzen da hippy-ohi hackerren inguruan sortu den lan kultura berria, mundu berri bat erditzen ari omen den teknologia askatzailea.

Elektronika ekoizten Txina 1980tik ari den arren, hango langileen bizimo-



Argazki handian Xu Lizhi. Bere poema batek dio: “Irentsi dut burdinazko ilargi bat haiek torloju deitzen dutena (...) irentsi dut bizia herdoilez josia. Ezin dut gehiago irentsi”. Eta Zhou Qizao lankideari buruz: “Askatu da torloju bat gehiago, beste anaia langile etorkin batek bere burua bota du eraikinetik”. Irudi txikian (eskuinean) Foxconneko lehendakari Terry Tai-ming Gou beste bi oligarkarekin batera aurkezten robot berri bat. “Buruzagi batek –esana du Terry Gouk– jakin behar du diktadorea izaten guztien onurarako denean”.

duak ez du mundua asko kezkatu 2006a arte. Nolaz 30 urteko axolagabekeria hori? Celia Izoarden ustean, Mendebaldean campusak eta Ikerketa+Garapeneko laborategiak ugaritu ahala, herrialde aberatsen oinarriak *ezagutzaren ekoizpenean* eta *informazioen trukaketan* ezartzen zihoazen heinean, horrek mui-nean zeraman maila handiko teknologia *desmaterializatu* egin zen operazio ideologiko-magiko batez.

“Gizarte materialista baten ondorio materialen ikusezintasuna” deitzen dio Izoardek: “Fabrika eta kateko lana ez da sekula gaur bezain urrun egon klase ertain globalizatuen imaginariotik, nahiz eta aldi berean munduan inoiz baino fabrika gehiago egon eta katean lanean sekula baino obrero gehiago ari”.

Teknologiarekin daukagun harreman oker hori dela eta, ez gara ohartzen

mundu mailan dauzkan eraginez. “Ingeniari, enpresaburu eta komunikatzaileek irudimen handiz azaltzen dituzte halako edo bestelako teknologiaren abantailak. (...) Baina ez dute batere irudimenik erakusten iragartzen dituzten onura sozialak alderatzerakoan objektu elektroniko berrien koste humano eta ekologikoekin”.

Foxconneko lehendakari Terry Tai-ming Gou oligarkak –munduko jende aberatsenen zerrendan 84.a– 2012an Taipeiko zooko zuzendaria gonbidatu zuen korporazioko koadro nagusiei hitzaldia ematera animaliak tratatzeko moduez. Lehendakariak esan zuenez, “milioi bat animalia berruzagi izateaz asperturik” zegoelako. Ez da anekdota hutsala, Gouk iragarria duelako ahal duen neurrian gainera kendu nahi dituela giza langileak, robotez ordezkaturak.

Izoardek kontatzen du 1949an ziber-netikaren sortzaile Norbert Wienerrek AEBko sindikatu nagusiko buruzagiak ohartarazi zituela automatizazio prozesuen arriskuez: “Edozein esku langile, jarritz gero konkurrentzian esklabo batekin, izan gizaki edo makina, esklaboaren lan baldintzak jasatera kondenatuta dago”. Hipsterren urrezko garaioan ez da horrelako abisu askorik entzuten.

Langileen greba eta liskarrak ikusten dira Txinan, dudarik gabe, baina egoerari aurre egiteko ahalmena Izoardek ikusten die klase ertain globalizatuari. Irudimen ahalegin bat eskatzen digu: “Eta hasiko bagina berriro gure lurraldetan berkokatzen darabiltzagun ordenagailu, telebista, iPad, foto makina eta telebista guztiak ekoizteko behar diren azpiegitura guztiak?” ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Aritz Ganboa, artzaina

«Herri asko desagertu dira mundutik eta Euskal Herria ere desagertu daiteke»

Sakanako Arruazu herriko artzaina. Askapenako kide izateagatik atxilotu zuten eta bost urteko jazarpen eta sufrikarioaren ondoren absoluzioa iritsi berri zaio berari eta auzipetutako beste lau ekintzaileei. Militantzia politikotik, artzaintzatik eta euskaratik munduari egin nahi dion ekarpenaz aritu gara.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Noiztik artzain?

Duela sei-zazpi urte hasi ginen. Arruazu herri txikia da, abeltzaintzatik eta nekazaritza bizi izan da orain dela gutxi arte. Etxe askotan azienda zegoen eta bizitza utopiko bezala nuen txikitatik. Duela hogeitaz bat urte hil zen gure osaba bat izan zen herriko azken artzaina. Berak erakutsi zidan lanbidea. Nik hori gordeta neukan eta horregatik duela zenbait urte etxeko larretxo batean ardi batzuk jarri eta poliki-poliki, lehengusu eta anaia batekin ikusi genuen aukera zegoela zerbait egiteko. Artzain eskolan aritu nintzen eta Gipuzkoako Bidaniko baserri batean urtebete egin ondoren osatu genuen gaur egun dugun 400 bat buruko artalde. Familia proiektua da eta hasieratik lagundu digute denek, zalantzekin, hori bai, artzainarena oso prestigio gutxiko lanbidea delako.

Gazta ere egiten duzue Idiazabal sor-markaren barruan.

Albi gaztak. 5.000-6.000 kilo urtean. Albi zen gure osaba artzainaren etxolaren izena, han goian Aralarren. Guk ere

ardiak han larratzen ditugu. Albin bada trikuharri bat, guk Jentil Harria deitzen duguna, eta kontu bitxia da, han artzain baten aztarnak aurkitu zituzten, bere lanabes guztiekin. Duela 9.000 urte inguruko trikuharria da, Neolitokoa. Milaka urtetan ez da artzainik gabeko unerik egon Aralarren. Guretzat hori berezia da, guk artzaintza ez dugulako lanbide huts bezala ulertzen, herriari eta etorkizunari egiten ahal diegun ekarpen bezala baizik. Bioaniztasunaren baitan, gizakiak belaunaldien arteko lotura egiten du bere hizkuntza eta kultura bidez. Horregatik, gure etxaldean bisitak antolatzen ditugunean hizkuntzaren garrantziaz hitz egiten dugu jendearekin. Jendea azaltzen diogu, adibidez, “ongarri” hitzak “onura ekartzen duena” esan nahi duela edo “hausnartzea” badela ardi eta behiek egiten dutena belarra jaterakoan. Hizkuntzaren bidez baloreak eta milaka urtez pilatutako jakintza transmititzen dira, herriak bizirik iraunarazteko beharrezkoak diren ikuspegiak.

Gaur egun hori dena atzerakoitzat hartzen da, baina prestigioa berreskuratu

tu behar dugu gizakiak etorkizuna izango badu.

Zergatik etorri zinen hiritik herrira?

Ama erizaina eta aita palista zen Diputazioan. Astegunez Iruñean bizi ginen, baina beti herrira joateko desiratan. Hirian lekuz kanpo sentitzen nintzen. Ez naiz ikasketetan sekula ona izan, edo gutxienez, ez dut fundamenturik jarri. Batxiler garaian, ikastolatik atera eta hemendik hara ibili nintzen hiru urtez. Iturrama institutuan lehenbizi eta gero Ermitagañakoan, gaez eta erdaraz ikasi nuen. Orduan osaba batekin hasi nintzen lanean sukaldeko altzariak muntatzan. Leitzan denboralditxo batez aritu eta gero Arruazura etorri nintzen.

Amaren familia Erronkarikoa?

Izaba eta Uztarrozekoak. Amaren aiton-amonak Erronkariko azken euskaldunetakoak izan ziren. Birraitona UGTkoa zen eta gerra garaian atxilotu eta Ezkaba mendiko presondegian egon zen. Han euskara zaharra galdu zen, baina hemen Arruazun giroa oso euskalduna da, familian eta herrian.



Aritz Ganboa

1979, Iruñea

Sakandarra bihotzez. Arruazun, aitaren familiaren herrian, bizi da. Artzaina. Duela sei urte anaia eta lehengusuarekin Albi gaztak ekoizten hasi ziren, agroekologia eta elikadura burujabetza printzipioetan oinarriturik. Askapena erakundeko beste sei kiderekin batera atxilotu zuten 2010ean. Hiru hilabeteko kartzelaldiaren ondoren, fidantzapean atera zen kalera. Otsailaren 3an, haien absoluizioa iritsi da Espainiako Auzitegi Nazionaletik.

Herri mugimenduetan lanean nola hasi zinen?

Bizitzaren zati garrantzitsu bat militantziari eskaini diot. Militantzia ulertzeko nire modua da pentsatzea zer eskaini diezaiokean gizateriari bizi naizen artean. Gazte mugimenduan aritu izan naiz. San Fermin ikastolan, adibidez, 14 urterekin, Euskal Herrian herri mugimenduetan garatzen ari ziren hainbat borroka eta lan ildo ordezkatzeko plataforma osatu genuen: intsumisioa, preso politikoen eta amnistiaren aldeko mugimendua, borroka feminista...

Gero Ikasle Abertzaleak taldean militatzen hasi nintzen, Donibaneko Gazte Asanbladan, Arruazuko gazte taldean bertako euskararen aldeko ekimenetan, Donibane auzoko Zarata Irratian presoenguruko saio bat egiten genuen eta auzoko inauteriak berreskuratu genituen... Oso garai polita izan zen.

Eta ondoren Askapenari hasi zinen?

Askapenara egin nuen salto beste borroka batzuk ezagutu nahi nituelako. Puri-purian zegoen zapatisten altxamendua eta indigenen altxamenduen eta gurearen artean lotura handia ikusten nuen. Arrebak brigada bat egin zuen Chiapasen eta hurrengo urtean ni joan nintzen. Txundituta, konturatu nintzen munduko borroka guztien iturburua askatasun eza izaten dela. Norberaren identitatea eta burujabetza ezin garatu izana aurkitu genuen mugimendu guztien sustraian.

Duela hamalau urte, urtebetez Mexiko, Guatemala, Kuba, Salvador eta Nikaraguan ibili ginen hainbat borroka molde ezagutzen. Gauza asko ikasi genuen, adibidez, Guatemalan borroka lurra berreskuratzea zen, eta Kuban berriz, nekazaritza ereduaz mintzo ziren. Han agroekologiaren printzipioa ezagutu nuen. Hiriak eta herriak nekazaritzaren inguruan antolatzen ari ziren, herritar guztiak modu iraunkorrean elikatzeko helburuarekin.

Mundu globalizatu eta kapitalistan erresistentziara kondenatuta?

Klase arteko gatazka etengabea da eta talka horretan gizakiak aurrerapauso nabarmenak eman ditu pertsona xumearen ahalduzko prozesuan. Beltzek egin dituzten borrokak, esate baterako, eskubide zibil eta politikoen arloan izan dituzten lorpenak ikaragarriak dira, bai-



Askapena epaiketaren aurkako mobilizazioa Iruñean, 2015eko urriaren 12an.

IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS

na horien atzean dauden sufrimendu eta borrokak ere izugarriak dira.

Urte hauetan ikasi dudana beste gauza garrantzitsua da inoiz ez dela lorpenik egon borrokarik gabe. Aldaketak ez dira berez gertatzen. Guk ekarri behar ditugu. Ez bagara mugitzen ez dira etorriko. Eta bide horretan, segur aski, askotan galdu egingo dugu. Etsaia, hau da, nire interesen aurkako helburuak dituen eta horiek lortzearen estrategia garatzen duena, garaile ateratzen da askotan.

Guk ere ikasi behar dugu gure lorpenen irakurketa egokia egiten, garaipenak edukitzen jarraitu ahal izateko. Herri asko desagertu dira mundutik eta Euskal Herria ere desagertu daiteke. Horretaz ez gara jabetzen. Errealitate hau, bere hizkuntzarekin eta bere jendearekin, desagertu daiteke. Pertsonak jarraituko dute, baina errealitate hau desagertu daiteke. Ez bada desagertu jada, hainbat pertsonaren erresistentziagatik izan da. Euskal Herria lorpen bat da. Munduko koloreetan beste bat gehiago, eta guk ez badugu defendatzen, beste inork ez du egingo.

Artzaintza, erresistentzia bidea.

Artzaintza da alde utopikoa garatzeko aukera ematen didan bizimodua. Herri bezala aurrera ateratzeko modu bat da, eta bestetik, pertsona eta langile gisa aske lan egiteko aukera. Hortik abiatuta beste hausnarketa orokorrago bat

egiten dut: Arruazun, artzaintza bezala, galdutzat ematen ditugun gauza batzuk berreskuratu daitezke eta etorkizuneko aktibo bihurtu, hizkuntza, esate baterako. Euskara ez dago galdua, baina argi dago galtze arrisku iraunkorrean dagoela. Oso hiztun gutxi gara eta gainera jazarriak. Batzuek uste dute jada desagertutzat eman beharko genukeela, eta aldiz, beste askok pentsatzen dugu munduari zerbait eskaini ahal diogula hizkuntzaren ikuspegitik. Azken finean, euskara ez da euskaldunona, munduarena baizik.

Artzaintza zure bizitza antolatzeko saia-kera dela diozu, bizi garen sistemak sortzen dituen kontraesan guztiekin. Zein dira kontraesan horiek?

Asko. Gurea, esate baterako, enpresa da eta salerosketatik bizi da ekonomia eta merkatu legeen arabera. Produktzioa ikuspegi industrialetik begiratu beharrean gara, baina zein da lehentasuna? Gure inguruak behar duena ekoiztea edo gure enpresa aurrera ateratzeko behar dena? Kontraesan horiek badi-tugu eta aitortu behar ditugu, baina ez onartu.

Askapenako militante bezala "Dena ETA da" teoriaren biktimia izan zara?

Asmakizun hori logika zahar batetik dator. Etsaiak beti mamuak sortzen ditu kalte egiten dionarekin. Ideiak edo aukera eraldatzaileak dira mamuak, ez tal-

Artzaintzan ustiaketa industrialaz: “Zein da lehentasuna? Gure inguruak behar duena ekoiztea edo gure enpresa aurrera ateratzeko behar dena? Kontraesan horiek baditugu”.

deak. Arazoa dator haien hegemonia zailtzean jartzen denean. “Dena ETA da” ideia nazioarteko testuinguruan ulertu behar da: AEB ordezkatzen duen sistema kapitalistaren eta Sobietar Batasunaren arteko talka amaituta, polo bakarreko mundura pasa gara. Orain sistema kapitalistan dauden tentsioengatik eta hegemonia lortu nahiarengatik sortzen dira talkak. Sistema kapitalista bultzatzen duen ikuspegi inperialistak beti zapalkuntza ekarri ohi du eta zapalkuntzak ongarritutako eremuetan sorrazten da mamu berria: terrorismoa.

Ondoren, haren inguruan, egitura legal, juridiko eta administratibo osoa eratzen da mamua kontrolpean izateko. Horretaz baliatzen dira, adibidez, Euskal Herrian proiektu politiko iraultzaile eta kritikoak desegiteko. Proiektuak

Iraun bai?

“Aralarko jentil-harriei erreparatuta ikusiko dugu gizakiek milaka urtetan bizitzeko eta iraunkortasuna bermatzeko modu bat izan dutela. Galdera hau da: Eredu berri hauek aurreko bizimoduak adina urte irautea bermatzeko gai al dira?. Ezetz dirudi, argi eta garbi”

bere osotasunean deuseztatu nahi dituzte, ez taldeak soilik. ETArekin kasuan, ETA mendearen hartuko dute ez ekintza armatuak egiteari uzten dionean, baizik eta bere proiektua desagertzen denean, eta hori da gaur egun ikusten ari garena. Lehen, armak utzi arte ezin zen hitz egin. Orain beste buelta bat gehiago eman dute eta hori jada ez da nahikoa. ETA dagoen bitartean proiektu totalitarioa ordezkatzen duela dio Estatuak. Gainera, diskurtso hori, ekintza errepresiboetan, jazarpenean eta beldurrean dago sostengatuta.

“Dena ETA da” horren atzean agerikoa da estrategia politikoa dagoela, eta gu ez gara gai izan hausnarketa politiko kritikorik egiteko. Batzuek pentsatzen zuten ETA desagertu ondoren hausnarketa egitea errazagoa izango zela

benetako arazoa ETA zelako, Estatuak zioen bezala. Baina errealitatea oso bestelakoa da. Azken urteotan jende pila atxilotu dute Twitterreko txioengatik. Ikusi dugu M15 bezalako estatu mailako mugimendu kritikoa nola lotu duten beharala ETArekin.

Iruditzen zait Euskal Herrian, eta ezker abertzalean gehienbat, batzuk modu estankotan ari direla pentsatzen, orain gertatzen ari diren gauza guztiak garai bateko gatazka politiko-militarren ondorioak direlakoan, eta ez da horrela. Lege berriak, *Mozal Legea* kasu, hala nola legeen interpretazio berriak daude, eta beti egongo dira. Errepresioak jarraituko du eta hemendik aurrera erresistentzia nola egin behar dugun pentsatu behar dugu.

Nolakoa izan zen zure atxiloketa?

Ez ninduten torturatu, baina oso gogorra izan zen niretzat eta ingurukoentzat. Bortitz sartu ziren, eta gure haurrak (orduan bi urte zituen), gauez beldurra izaten jarraitzen du. Etxeko atarian zegoen familiaren eta lagunaren aurka kargatu zuten eta hori ikusarazi zidaten. Hasie-

Azken hitza:

Amesgaiztoaren alde onak

"Bost urte latz eta oso luzeak izan dira. Poliziaren etengabeko jazarpena pairatu dugu, baina, bestalde, harrigarriak izan dira aurkitu ditugun jarrerak. Zenbait sektore politikitik eta zenbait pertsonarekin sorpresak izan ditugu. Erakutsi dugu konfrontazioaren diskurtsoarekin kalera atera gaitezkeela, desobedientzia aldarrikatuz kolore laranjarekin, 'Libre' leloarekin. Aldi berean, parlamentura joan gara Podemos edo Izquierda-Ezkerrarekin gure egoeraz hitz egitera, eta berdin Katalunian, Madrilan, Irlandan, Bruselan, Italian... Jende askorekin solas egin eta ikusi dugu ados daudela eskubide sozial eta politikoen defentsan. Jarrera horiek astindu behar ditugu, behartu. Kaleko jendeak presionatu behar ditu politikariak horren alde ager daitezen publikoki eta beldurrik gabe".

ratik mehatxuak egin zizkidaten, gelditu gabe. Jipoiak noiz hasiko zain beldurrez egon nintzen hasieran.

60.000 euroko fidantza ordaindu behar izan zenuen.

Ez sinatzea izan zen nire lehen erreakzioa, familia osoan ez genuelako hainbeste diru. Oso latza izan da. Etxea, kontu korronteak, autoak, inguruko guztien aurrezkiak... dena enbargatua izan dugu, eta gainera krisi garaian. Tortura bezala, dena pentsatua dago zure pausoak baldintzatzeko. Norberak bere erabakiak har ditzake, baina ikusi behar du inguruko jendearengan zein ondorio dituen.

Borrokan jarraitzeko asmorik bai?

Bai, hori beti, baina ikusi behar da nondik. Ni artzaina naiz, ardiak ditut eta elikadura burujabetzan borroka izugarria dago egiteko. Printzipio agroekologikoetan sinesten dut, sindikalismo aktiboan ere bai, EHNEko eta Bizilur-eko kidea naiz eta hor badut sakontzen lan handia, baina saltsa askotako perrexila naiz. ■

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

Mundua ulertzeko beste begirada bat, ARGIAren eskutik.

 **ARGIA**

Egin ezazu eskaera:

☎ 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



15€

bidalketa barne
Euskal Herrian

Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Erlojuak eta tribuak



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Hedabideek ikerketa bat zabaldu dute: 1975 eta 1979 urteen artean jaiotako emakumeen ia herenak ez du seme-alabarik izango. *El País* egunkariak, “gehiegi itxaroteagatik” amak izango ez diren emakumeen “drama” kontatu du. Adituen esanetan –gehienak gizonezkoak–, arrazoieta bat prekarietatea da, beste bat bikote harreman egonkorra “beranduegi” topatzea. Gizonezko aditu horiek diotenez, emakumeen “ugalketa ametsak” betetzeko baliabideak jarri behar dira, esaterako, doako haurtzaindegia. Espainiko Estatua amatasuna gehien atzeratzen duen Europako herrialdea omen da, kontziliazio politika egokien faltarengatik. Espainiako Ugalkortasunaren Elkarteko kide batek, Isidoro Brunak, beste arrazoi bat eman du: emakumeon kontzientzia falta. Hau da, ez dugu kontuan hartzen gure “erreserba obarikoa” agortzen ari dela, uste dugu, Anne Igariburu bezala, 45 urterekin haurdun geratu ahal izango garela. Tuntunak eta arduragabeak gara, alegia.

Gai honi buruz beste hedabideetan topatu ditudan erreportajetan ere emakumeen sufrimendua eta frustrazioa dira nagusi. Amatasunaz, ez aitasunaz, hitz egiten dute beti. Bikoteak aipatzen dira –denak gizonezkoak–, argazkietan ere agertzen dira, baina ez da euren testigantza jasotzen eta ez da mundura umerik ekarriko ez duten gizonen portzentajea zehazten. Ama ez izatearen erabakia gozatzen duten emakume gutxi agertzen dira, eta seme-alabak izateaz damutu den amarik ez dago, noski.

Gizonezko adituek diotenez, nire adineko emakumeok erne egon behar dugu, ezin dugu erlojuaren tiki-taka ahaztu. Ahaztu? Posible al da ahaztea? Ugalketa kliniken publizitatea nonahi dago; hedabideek krisi demografikoari buruz etengabe dihardute, eta familian “luzaro barik pasako zaizu sasoia”

Gizonezko adituek diotenez, nire adineko emakumeok erne egon behar dugu, ezin dugu erlojuaren tiki-taka ahaztu. Ahaztu? Posible al da ahaztea? Ugalketa kliniken publizitatea nonahi dago; hedabideek krisi demografikoari buruz etengabe dihardute, eta familian “luzaro barik pasako zaizu sasoia” bezalakoak entzun behar ditugu. Beno, lesbianak bagara

bezalakoak entzun behar ditugu. Beno, lesbianak bagara.

Abortatzeko eskubidearen borroka irabazi dugu baina gizarte patriarkalak gure uteroak kontrolatzeko tresna gehiago ditu. Esaterako, “gehiegi itxaroten” badugu, zoritxarrekoak izango garenaren mehatxua.

Bitartean, nire inguruan, askok argi daukate seme-alabak nahi dituztela; askok argi daukate ez dituztela nahi. Beste batzuek ama izateko erabakia ezinegonez bizi dugu: zalantza, oztopo, presio eta beldur mordorekin. Baina, erabaki hori hartzeko orduan gure amak eta gure amamak baino libreagoak gara. Umerik ez izatea aukera bat dela dakigu. Familia nuklear erradioaktiboa apurtzeko aukera ere badaukagu. Senarrik gabe, gure emakumezko bikotearekin edota polimaitasun ereduak probatuz familiak sortu ditzakegu. Hori bai: Espainiako Gobernuaren diskriminazio politikarekin topo egingo dugu.

“Tribuan”, komunitatean, hezteko ereduari buruz berriro ere asko hitz egiten da, baina normalean amak diren artean batez ere. Amatasunaren “ametsa” –nik “agintea” esango nukebete ez duten emakumeen testigantzak irakurtzean burutapen bat izan nuen: haur bat “izatearen” behar hori kapitalismoak sortutakoa da. Familia nuklearra eredu indibidualista dela, jabetza pribatuarekin lotutakoa. Egon badaude seme-alabak izan ez dituzten pertsonak, baina horiek haurrak –ilobak edota lagunen seme-alabak, besteak beste– hezten laguntzen dute. Familia eredu komunitario baten aldeko apustua egingo bagenu, seme-alabak izateko aukera ez dutenek agian ez lukete porrot sentimendu hori sentituko, tribuan bere papera izango luketelako. Haste-ko, beldurrak astintzeko eta erlojuak birrintzeko, irribarre bat jar dezagun “katuen atso zoroaren” irudian. ■

Sarrerak, euskaraz

Ebidentea den zerbait esateko arrisku handiarekin erabaki dut anekdota bat kontatzea. Euskal Herriari Martetik begiratzeko konplexua daukat batzuetan, eta ebidentea zer den eta zer ez den jakiteko gaitasuna galtzen dut. Hor doa, badaezpada.


Euskal Herrian izan naiz (1) eta Osasun Zentrora joan behar izan dut, pediarraren kontsultara. Harreran ederto hartu naute. Erdaraz. Hango sisteman ez gaudenez, tarte bat zuen lehen pediarrarekin eman dit hitzordua harrerakoak. Kontsultara sartu garenean, nire buruko soziologoa aktibatuta dut. Segundo bat baino gutxiago daukat diagnostikoa egiteko: berak ez dit niri euskaraz egingo baina, adinagatik, (nire adin ingurukoa) euskaraz jakiteko aukerak handiagoak dira ez jakitekoak baino. Beraz, nik egingo diot. Euskaraz al dakien galdetuz. “Bueno, bai”, erantzun dit. Eta euskaraz artatu gaitu (honek ere, ederto). Ezin dut jakin, baina baliteke pediarrak lehenengoz lanean euskara erabili izana. Beharbada –eta hipotesi horrek pentsarazi dit zenbateraino diren kontu batzuk ebidenteekin ez diolako aurretik halakorik eskatu. Eta eskatu diodanean, esan nezake, zergatik ez: horretara animatu edo horretarako aukera eman. Ez dut berarengan ziurtasun faltarik nabaritu, ez lotsarik hizkuntzaren mailagatik. Nik eskertu egin diot (2). Baliteke, hori ere ezin jakin, kontsultatik atera garenean, egindako ahaleginagatik pediarrari hasperen bat atera izana. Baliteke harro sentitu izana. Agian, eszitazio bat ere sentitu du. Performance bat egin ondoren izaten diren sentsazioak.

Nire kasuan, aitortu behar dut seimeen egoera linguistikoak behartu egin nauela, eta bide batez ohitu nauela, nire inguru hurbiletik kanpo ere euskara eskatzera: erantzun oso positiboekin. Bilboko Metroan ez dut inoiz



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

zortzerik izan. Baina bai hondartzako sorosleekin, urgentzietako mediku eta erizaineekin, aparkalekuko leihatilako langilearekin, zinemako txartel saltzaileekin...

Gauden momentuan, goian kontatutako eszenaren antzeko batek segundo-ro Euskal Herriko mila txokotan errepikatzen egon beharko luke. Urteetako hizkuntza politikak heldu dira dagoeneko horretarako beharrezkoak diren eszenatokiak sortzera (Euskal Autonomia Erakudean). Hizkuntza politika birplan-teatu, zabaldu, perfektionatu beharko da. Egongo da horretaz nor arduratu. Baina egunerokoaren protagonistak gu gara. Jende askok ikasi du euskaraz, eta orain, erabiltzen dugun gutxiengoari dagokigu ulertzen duen eta hobeto edo txartoago dakien gehiengoak aktibatzea. Halako eszenak biral bihurtu egin behar dira. Antzekoak, bariazioekin.

Ez nator –Martetik– esatera horrekin dena konponduta legokeela. Nik esaten dudana ebidenteegia izango da agian: komunikazio eredu iraultzeko, buru barruan klik egin behar duela euskaldun izateko kontzientzia eta nahia duenak. (EAE) ez du borroka handirik egin beharko, ez du tentsio handirik bizi beharko. “Gehiengo” hitzak aktibatzen duen klik txiki bat buru barruan. Hor kanpoan badaude dagoeneko baldintza nahikoak nonahi eszenatokiak eraikitzeko. Antzoki handiak bete ahal izateko, lehenengo, jendea antzerkira zaletu beharra baitago.

1) Algortan. Beraz: Bilbo Handia, Bizkaia (EAE).

2) Gure kasuan, gainera, pediatria euskaraz moldatzeko gai izan ez balitz, semeak ulertzen ez duen hizkuntza batean ariko litzateke berbaz. Hori bizi izan dut nik umetan, artean gaztelaniarik ez nekiela, pediarrak erdaraz egitean. Baina hortxe dago kokka: bi belaunaldi ezberdin gara. ■

Gibelka kontua



Jakes Bortairu
BATERA-KO KIDEA

Lau hilabete eskas dira Ipar Euskal Herriak lehen aldikoz nortasun instituzionala lortuko ote duen jakiteko. Aspaldiko ezagupen aldarrikapenari Frantziako Estatua erantzun bat ematekotan da, herri guztiak bilduko dituen herri elkargo bakarra sortzen lagunduz. Hitza eta erabakia halere, hautetsien esku daude. Lehen fasean prefetak mahai gainean ezarri proiektuaz iritzi kontsultagarria emateko parada izan zuten udalek pasa den urtearen bukaeran. Nehork aurreikusi ez zuen parte-hartzea izan zen eta herriko kontseilu guziek deliberatu zuten, aldeotasunak gehiengo handia bilduz. Bigarren fasean gara bete-betean, non eta Departamendu osoko hautetsiek osaturiko batzorde batek zuzenketak onartzen ahal dituen, bi herenak alde agertuz gero. Amikuzeko Barthélemy Aguerre jauntxo famatuak bere eskualdea Biarnorekin lotzeko proposamena ekarri du, baina arras boz gutxi bildu. Dirudienek, nehorik ez du besterik proposatuko prefetaren proposamena zalantzan ezartzeko. Hirugarren fase erabakigarriak martxoaren hondarretik hasi eta 75 egun iraunen du, herri herri zinegotziek bai ala ez erran beharko dutelarik. Azkenik, bigarren urte erdian, elkargoaren estatutuak idatzi, konpetentziak hautatu eta fiskalitatea adosteko pakto politikoak lotu beharko dira, 2017ko urtarrilaren 1ean elkar goa funtzionatzen hasteko.

Ibilbide horren erdian proiektuarekin arras kritiko agertu diren hautetsi batzuek, tartean hirigune handienetako lau auzapez, beste proposamen bat aurkeztu berri dute: gaurko hamar herri elkargoak zortzi bihurtzea –legearen salbuespenak aplikatuz– eta haien arteko koordinazio poloa sortzea. Eskubide osoz egindako proposamena eztabaida demokratikoaren ikuspuntutik eskertzekoa izan liteke baina katu horrek halere, badu beste buztanik. Adierazgarria izan da aurkezpen prentsaurrekoan barnealdeko batzuek kostaldearen nagusitasunaren kezka aipatzea, ondoko hirigunekoek elkargoaren asanbladan barnealdeko ordezkarien kopuru handiegia salatzen zuten bitartean. Prozedura epez kanpo aurkezteagatik eta bere ahuleziengatik proposamena ez da alternatiba sinesgarri bat. Zortzi elkargoen mapa ez dute aurkeztu eta ahanzten dute elkargo bakarraren hipotesia huts eginez gero, Iparraldea hirutan zatitzeko prefetaren promesa. Ez dute erraten polo horretan lurralde osoaren presentzia ez dela segurtatua. Mamuak piztu, beldurrak hauspotu eta dudakor guztiak federatzeko egina da, hots, herri elkargo bakarrak hirugarren fasean lortu behar dituen bi gehiengoetarik bat –populazioaren erdia ordezkatzuten duten herrien erdia– galarazteko azken momentuko saiakera. Nekez lortuko dute, baina sekula ez da halako polarizazio gordinik ikusi Iparraldeko klase politikoan. ■

Gero eta gazteagoak gara



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Badago kategoria sozial bat aspaldion indar betean diharduena, inoren muzinik jasotzen ez duena: gaztearena. Izan ere, denok gara gazteak, eta gaztea ez denak ere gazte nahi du izan. Gaztetasunaren aldarri totalean bizi gara, kontsumo-jendarteak gaztetasunari ustez dagozkion balioak marketinaren laguntzaz ederki hauspoturik. Inor iraindu nahi izanez gero, lasai iradoki haren adinarekin gazte izatea gauza nekeza dela.

Denok gazteak garenez gero, ezin kabitu larria adierazten hasiak dira “gazte” kategoriaren ahaide hurbilak diren zenbait hitz, eta gero eta

jende gehiago sartzen dugu –gara– zaku sozial eta semantiko berean. Esandakoaren adibidea izan daiteke “emakume/andre” eta “gizon” hitzak gero eta gutxiagotan erabiltzen ditugula “neska” eta “mutil” *erakargarriagoen* mesedetan. Hain da handia indarraldi hau, ezen haurrek ere “neska-mutil” esaten baitiete haien (lagunen) gurasoei; ikasgelako kideei bezalaxe, alegia.

Berezko errealitate anitza homogeneousatzeko arriskua dakar pertsona guztiak gaztetzeko txirrintak: neska-mutilez bete zaizkigu ikastetxeetako patioak, hiriko dendak, kultur ikastaroak eta, harrapazank, bulego-lantegiak. ■

Txantxangorriaren hegaldiak!

Bernardo Atxagak “Txantxangorria txantxate, birigarroa alkate, xoxoa dela mediante, txepetxa preso sartu dute” kopla zahar honi emandako interpretazioaren arabera, txantxangorria urte berriaren ikur da, urte guztian ez baizik abenduan ikus dezakegula gure inguruan, eta entzun haren txantxana. Urte berriaren ikur izatea polita da, baina urte guztian oso gutxi agertzen da, eta gero eta hiritarragoa dugun gizartean gero eta ezezaguna, exotikoagoa da.

Aspaldiko esaera da, bestalde, Jesus-kristo gurutzean iltzaturik zela, arantzak kentzen aritu zitzaioela, eta Jesusen odol tanta paparrean gelditurik, horregatik dela papar-gorria. Esaera horren indarra, baina, hutsaren hurrengoa dugu gaur egun.

Txori txikia da, bakartia, eta indibidualista. Hiruzpalau urte bizitzen da, egungo legegintzaldiak bezala. Egungo bizimodu hiritarrean ezer gutxi den, eta gehienentzat guztiz ezezaguna den txori txiki bakarti, indibidualista bat hautatu dute, beraz, euskararen ikur, EAEko hizkuntza-politikaren arduradunek.

Atzoko “gutxi asko da”-tik txantxangorriaren eskutik, “Eman hegoak euskarari”-ra igaro gara: “Elkarrekin hegan egitean, bertigoa badoa. (...) Elkarrekin,



Pako Sodupe

IDAZLEA

Txori txiki gisa irudikaturiko euskaldun apal horixe egiten zaio gonbidapena, bere moduko txori txikiekin hegan egin, eta zeruaren mugara hel dadin, hots, euskararen salbamenaren zerura

zeruaren muga ez dago horren urrun. Elkarrekin hitz bat ozenago entzuten da, ehunka txoriren hegaldia bezala. Hau da gure sinboloa, denona. Euskaraz hitz egiteko gonbidapena”.

Txori txiki gisa irudikaturiko euskaldun apal horixe egiten zaio gonbidape-

na, bere moduko txori txikiekin hegan egin, eta zeruaren mugara hel dadin, hots, euskararen salbamenaren zerura; eta, adoretzeko, muga hori urrun ez dagoela esaten zaio. Zer emozio sortuko ote du kanpainak gurean bizi den eraldunarengan? Errukia? Ezaxola?

Ehunka eta milaka txorik elkarrekin hegan egin dezagun, lehen eskakizuna euskararen ezagutza unibertsalizatzea da, hasteko, irakaskuntzaren bidez, eta horretarako behar diren politikak –D eredua indartu eta zabaldu; A iruzurra denez baztertu, eta B ere bai, baztertzen joan, ehuneko handi batean ezgauza baita!– abian jartzea. Horrekin batean, zer beharrezkoak ditugun motibatzaileak, euskaraz egin nahia sortuko duen jendea. Zein premiazkoa genukeen ikasleak euskaraz egitera bultzatuko dituzten motibatzaileen sare handi bat; betiko arlo oso herrenak ahaztu gabe: Osakidetza, Ertzaintza, Justizia, eta estatuaren mendeko administrazioa.

Epe luzeko helburuak bete zain egon gabe, euskaldunok hegaldi gero eta luzeagoak eta eremu gero eta zabalagoetara eginez, gero eta txori txiki gehiagorekin. Kanpaina instituzional ausartagoak behar ditugu, eta helburu eta baliabideak ere bai! ■



Liburu azoka

Bermeon, martxoaren 11tik 20ra Lamera plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



2016KO SAGARRONDOTIK SAGARDORA IKASTARO PRAKTIKOA USURBILEN ALKARTASUNA KOOPERATIBAK ANTOLATUTA

*Kinaketa praktikak bertako
Sagastietan egingo dira!*

Otsailak 27:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA.
Aitor Etxeandia

Martxoak 5:

ZUHAITZEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.
Josu Osa

Martxoak 12:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIKOTASUNAK
ETA TRATAMENDUAK. Aitor Etxeandia

Martxoak 19:

GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN LAGUN.
Egoitz Zapiain

Apirilak 30:

LANDAREEN BIZIMODUA. ILARGIAREN ERAGINA.
Xabier Akizu eta Jakoba Errekondo

Ekainak 4:

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.
Aitor Etxeandia

Uztailak 9:

ZUHAITZEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.
Josu Osa

Irailak 10:

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK eta ETXEAN SAGARDOA
EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain.

IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00tara LEKUA: Potxoenea Kultur Etxea (Usurbil)

Ikastaro osoaren prezioa: 96€ (Alkartasuna Kooperatibako bazkideak DOAN)
Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan.

IZEN EMATEA: 943361114 alkartasuna@usurbil.com edo www.alkartasuna.eus

AÑORGA + ZUBIETA

DONOSTIA, ERRAUSKETAREN HIRIBURUA?

Gipuzkoako Foru Aldundiak presa eman dio Zubietan errauste planta eraikitze asmoari, aurreko legealdian lurperatutako proiektua berpiztuz. Zubietan labe bikoitz berria eraikitzen baldin badute, Añorgan hondakin industrialak erretzen dituen Rezolatik 4,5 kilometrora, Donostiak bigarren erraustegia edukiko du laster.



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Abisatu zuen Markel Olanok 2015eko hauteskunde kanpainan, Zubietako erraustegia egin egingo zutela, eta orduan esana betetzeari ekin dio berehala EAJk eta PSEk osatutako Foru Aldundi berriak. Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak grafikoki adierazi duenez, “*a contrarreloj*”.

Erlojupeko lasterketa baino *Blitzkrieg* bat, tximista-gerra, antolatu dute 2002tik egin ezinik daukaten labea eraikitze. Gerra laster bat hondakin kudeaketa duela 15 urteko PIGRUG haren arabera berrantolatze, eraso bi fronte nagusitan: batetik PIGRUG hura berpiztu, bestetik azken lau-bost urteetan Gipuzkoan zabaldu den kudeaketa alternatiboa goitik behera eraitsi.

Gaikako bilketan, urrats bat atzera

Irakurle ez gipuzkoarrak pentsa lezake: “EAJ eta PSE ahal duten herri guztietan Atez Atekoa kentzen ari dira”. Hori baino konplexuagoa da, baina urrezko araua betetzen dute beti: derrigortasunean –eta ondorioz emaitzetan– gutxienez maila bat jaitsi.

Atez Atekoa ezarrita dagoen herrietan, batzuetan alkateak zuzenean kontainer librean ezarri ditu berriro, Pasaietan eta Lazkaon lege, galdeketa gabe. Beste batzuetan herri galdeketa antolatu dute, herritarrei aukeran jarritz derrigorrezko bi sistema, edo Atez Atekoa edo kontainer kontrolatu txipdunen bidezkoa. Laburtzeko, orain arteko Tolosakoaren edo Arrasatekoen parekoa.



Aldiz, hasieratik edukiontzi kontrolatzeko sistema zeukan Tolosan EAJko alkateak erabaki du mailaz jaitea, ia kontrolik gabeko lehengo edukiontzietara itzuliz. Oraingoz EAJk eta EHBilduk Atez Ateko mistoa kontsentsuatu duten kasu bakarra Lezo da.

2015eko maiatzean berritutako administrazio guztietan ez da ikusi azken errefusa (zabortegi, TMB, erraustegi eta beste azpiegitura handi kutsakorak justifikatzen dituenak) gutxituko duen aldaketa bakar bat, oso bestela, aldaketak beti dira azken zaborra gehitzeko aukera handitzen dutenak.

Zero Zabor eredu eraisteko ofentsibaren beste zati bat mankomunitateek eta Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa



Errauste planta eraikitzeko 2010ean zulatutako gunea, Zubietako lurretan. Aurrean, Lasarte-Oria. Ezkerreko muinoak ezkutatzen du Añorgako Rezola porlan fabrika, zulo honetatik 4,5 kilometrora dagoena.

DANI BLANCO

kontsortzioak hartu dute beren gain, tasa berriekin zigortuz gehien birziklatzen duten udalak. Horiek gaika bereizita entregatzen dioten tona bakoitzagatik aurten iaz baino %44-%88 gehiago ordaindu beharko diote; azken errefusa, ordea, tratamendua konplikatu eta arazoak sortzen dituen, askoz gutxiago garestitu da. Adibide bat nabarmentzeko, pertsonako eta urteko 53 kilogramo errefus entregatuta Hernanik GHKri %39 gehiago ordaindu beharko dio, 274 kilogramo zabor nahasi entregatzen dion Donostiak baino askoz gehiago.

Tasa berriek, justiziaren ikuspegi oinarritzkoenetik bidegabeak izateaz gain, asko garestitutako diete udalei gaikako bilketa on bat egitearen kostea. Europa

osoan, eta guregandik hurbil Katalunian, azken errefusa zigortzeko joera dagoen honetan, Gipuzkoako agintariek erabaki dute udal bati merkeago aterako zaiola zaborrak nahasita entregatzea gaika ondo bildu eta birziklatzea baino.

Udal hauteskundearen bezperan, 2015eko udaberrian gipuzkoarren %31 bizi ziren gaika hondakinen %70 baino gehiago biltzen zuten herrietan, gehienak pertsonako eta urteko 80 kilogramo errefus baino gutxiago sortuz. Bide horretatik posible zen betetzea Iñaki Errazkin Ingurumen diputatuak 2014ko otsailean aurkeztutako planean aurreikusia: 2016an Gipuzkoan azken errefusa 130.000 tonaraino murriztea, horiek erraz tratatzeko 2015 amaiera-

» Gaika bereizita entregatzen duten hondakin tona bakoitzagatik iaz baino %44-88 gehiago ordaindu beharko diote udalek GHKri; azken errefusa, tratamendua garestitu eta arazoak sortzen dituen, askoz gutxiago garestitu da

rako prest egon behar zuen TMBan, eta hortik ateratako azken hondakin gel-dotuzko 70.000 tonak –ondoko urteetan gutxitzen joango zirenak– Zestoako Osinbeltz harrobian gordetzea.

“Zero Zabor lurralde” esan duzu?

Missing. Erraustegirik gabeko plan hura desmuntatu beharrik ere ez da, antza. Ez bilatu inon *Gipuzkoa, Zero Zabor lurralde*. Lau urteko zulo txiki bat Gipuzkoako historian. Urteotan Gipuzkoako herritarrek ezer berririk ikusi eta probatu ez balute bezala, 1990eko hamarkadan erredaktatutako PIGRUG zaharrari heldu diote berriz GFAn.

Abenduaren 18an Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu zuen Asensio diputatuak 2015-2019 *Kudeaketa Plan Estrategikoa*, 2045. urtera arte Gipuzkoak gai honetan izango dituen beharrak asetzeko asmoarekin. Muinean darama urtean 200.000 tona erretzeko ahalmeneko errauste planta bat, aurreikusiz 163.500 erre beharko dituela.

Plan berrituari egin zaizkion kritika batzuk ezagunak dira 2002tik, errausketa auzitan jartzen dutelako: kutsaduragatik osasuna kaltetzen du, klimaren aldaketa areagotzen, birziklatzearen etsaia da, garestia, herritar eta administrazioak urte luzerako zorpetzen ditu, errausts kutsagarriek biltegiak beharko dituzte... Baina, gainera, oraingo ahaleginari bi huts berezi azpimarratu zaizkio.

Alde batetik, hondakin aurreikuspena justifikatuko lukeen populazio handitzea. Prognosi honek aurreikusten ditu Gipuzkoan 30.000 biztanle gehiago Gaindegia ikerketa taldeak aurreikusitakoak baino. Planaren idazleak berak 100. orrialdean aitortzen du gakoa: “...populazio aurreikuspen desiragarria litzateke, kalkuluetan kontutan hartuz immigrazio saldo aski handiak [suficientes, gaztelania hutsez dagoen agirian] sostengatzeko hazkunde ekonomikoko bat etorkizuneko pentsioak eta ongizate estatua ahalbideratuko dutenak...”. Hondakinak planifikatzen hasita, Xabier Garmendiak Gipuzkoako demografiaren hazkundera bera planifikatu du, ongizate estatuari eusteko zenbat etorkin ekarri beharko diren ere bai.

Hori gutxi balitz, prognosiak ez ditu kontutan hartu gaikako bilketan eta azken errefusaren murrizketan urteotan Gipuzkoan egindako aurrerapausoak.

XABIER GARMENDIA, “GAI HAUETAN ADITUA”

Jose Ignacio Asensio diputatuak abenduaren 18an Batzar Nagusietan hitzokinetan aurkeztu zuen PIGRUGeko prognosia eguneratzen aritu den profesionala: “*El experto en estos temas Xabier Garmendia*”.

Mikel Peruarenak “Zeinek erre nahi ditu hondakinak?” liburuan azaldu zuen nor den Bizkaiko eta Gipuzkoako errauste plantak diseinatu dituenak. Ikasketaz industria ingeniari, 1987tik Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Ezkerrako parlamentario, 1991-1995 urteetan Ingu-rumen sailburuorde aritu zen Ardanza lehendakariarekin. 1995ean ingurumena eta herritarren osasuna zaintzeko kargua utzirik, hondakin kudeaketari eta errausketari lotutako negozioetan murgildu zen.

Enpresa publiko eta pribatuetan zituen edo dituen kargu ugarien zerrendatik ale batzuk hautatzen hasita, DPA Desarrollo y Protección Ambiental sortu zuen, ingurumen aholkularitza zerbitzuak eskaintzeko; 1996an Eusko Jaurlaritzak DPari pneumatiko zaharrak kudeatzeko esperimentazio pilotua baimendu zion. Handik laster sortu zuen Garmendiak Neuciclaje enpresa, autoen pneumatiko zaharrak berreskuratzeko... erregaitzat erabiliz zementu fabriketan. Neuciclajeren ad-



ministrazio kontseiluan daude Cementos Lemona eta Cementos Rezola.

2002an ISR Instituto para la Sostenibilidad de los Recursos antolatu zuen Garmendiak, Espainiako Estatuan errausketaren aldeko lobby lanak egiten dituenak. “ISRk gidatu du –azaldu zuen duela

bost urte Peruarenak– Nafarroako hondakin kudeaketa plana, eta Garmendiak berak antolatu ditu Bizkaiko eta Gipuzkoako planak, San Marko eta Txingudi mankomunitateen zenbait kudeaketa plan ere bai”. ISRk aurretik Club Español de Residuos izena eduki zuen, orain Fundación Economía Circular, ekonomia zirkularraren kontzeptua errausketaren lobbyak Zero Zabor mugimenduari osturik.

2009an Patxi Lopez (PSE) lehendakariarekin egin zuen berriro jauzi politikara Garmendiak, Industria sailburuorde izateko. ETAk su-eten definitiboa iragarri zuen egunean AEBetan zegoen lehendakariarekin, fracking bidezko gasaren negozioko konpainiekin harremanak estutzen. Ate errotetan itzuli berri bat eginenez, 2015eko udazkenean Gipuzkoako Foru Aldunditik berriro deitu diote Xabier Garmendiari, Gipuzkoako errauste planta azkenean abian jar dezan.

» Aldundiaren plan berriak ez ditu kontuan hartu gaikako bilketan eta azken errefusaren murrizketan urteotan Gipuzkoan egindako aurrerapausoak

Usurbilek Atez Ateko bilketa estreinatu zuenetik, demostratu da askoz errefus kopuru txikiagoa sor daitekeela oso denbora laburrean. Eguzki talde ekologistak azaldu duenez, Gipuzkoak gaur sortzen du Garmendiak berak 2002an aurreikusitakoa baino %30 zabor gutxiago.

Beraz, edozein plangilek aurreikusi beharko luke *B hipotesia*, epe laburrean lurralde osoa gaikako bilketa on batera eramatearena, datu errealetan oinarrituta. Arrasateko biztanleek 2015ean sortu dutena (106,13 kg) Gipuzkoa osora (707.000 biztanle) zabalduz gero denetara 75.100 tona errefus sortuko lirateke; Bergarakoek lortua (68,6 kg) zabalduta 48.500 tona; eta

Antzuolaren 50,85 kilo errefusetara mugatuz gero 36.000 tona. Erraustegiak 163.000 tona kiskali ondoren lagako lituzkeen errauts eta eskoriak baino gutxiago. Ez da harritzekoa Debagoienako herritar asko berek dagoeneko martxan daukaten *B planaren* alde mobilizatzen hastea zabortegei berri bat iragarri zaienean.

Erraustegiak berotuko du legealdia

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea (OEIT) berpiztu da Zubietako errauste asmoa berpiztearekin batera. 2004an osasungintzako zientzian profesionalak sinatu zuten errausketa salatuz presatutako agiria. 2006an nazioarteko sinposium bat antolatu ere bai. Orain publikoki azaldu dira berriro, adierazteko gizakien osasunerako duela hamabi urte bezain sistema txarra dela hondakinak labean kiskaltzea.

Azken urteotan aldizkari zientifikoe-tan argitaratutako ikerlanak aztertuta, OEITk berretsi du erraustetako gaixotasun larriak ugaritzen dituela. Ezagunen eta aipatuenak minbiziak dira, baina etengabe zabalduko gai kutsakorrek askotarikoak izanik (dioxina eta furanoak, nitrogeno oxidoa, metal astunak, aerosol azidoak, hidrokarburo aromatikoa...) bestelako eritasun larriak ere eragiten ditu: hormonalak, sortzetiko malformazio eta anomaliak... Belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak.

Zubietako errauste plantaren kutsadura, gainera, gehituko litzaioke dagoeneko hondakin industrialak erretzen dituen Añorgako zementu fabrikarena. Donostiak horrela beste domina bat irabaziko luke 2016 historiko honetan: bere udal eremuan bost kilometroko tartean bi errauste plantaren jabe izatearena.

2002tik dabil erraustegi bat jira eta bira gipuzkoarren buruen gainetik, orain Hondarribian, gero Zestoan... azkenean Zubietan. 2011-15 legealdian Zero Zabor ereduaren urrats handiak egin dira, Europar ere miresmena sortu dutenak. Baina, aldi berean 2002tik gaurdaino eraiki beharreko azpiegitura inportanteak (konpost plantak, TMBa...) edo utzikieriaz edo blokeo politiko ez dira antolatu.

OEITko medikuek salatzen duten eztabaida garbi baten faltan, gizarteak hedabide nagusietatik sekulako irudi eta mezu katastrofista zalaparta jasotzen



ANDONI CANELLADA

E.2.1.b.2. Los residuos peligrosos admisibles como combustibles alternativos son los siguientes:

Denominación	LER	Dosificación máxima	Sustitución térmica máxima	Punto de Introducción
Residuos mezclados previamente, compuestos por al menos un residuo peligroso Residuos combustibles líquidos que contienen sustancias peligrosas (CDR)	19 02 04* 19 02 08*	5t/h	40%	Quemador principal

El combustible CDR será una mezcla de residuos industriales tales como lodos, pinturas, barnices, disolventes, tintas, ceras, grasas y aceites constituyendo un material orgánico líquido bombeable de color negro, con un punto de inflamación bajo y de viscosidad media.

Dicho combustible se identifica con los códigos LER 19 02 04 (residuos mezclados previamente, compuestos por al menos un residuo peligroso) y LER 19 02 08* (residuos combustibles líquidos que contienen sustancias peligrosas).*

Goian, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko medikuak Donostian beren txosten eguneratua aurkezten. Behean, Eusko Jaurlaritzak 2015ean Rezola zementu fabrikari aldatutako Ingurumen baimenaren irudi bat, erre ditzakeen hondakinetatik hirugarren multzoa –arriskutsuak– azalduz.

» Publikoki azaldu dira berriro Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko medikuak, adieraziz gizakiaren osasunerako duela hamabi urte bezain sistema txarra dela hondakinak labean kiskaltzea

du, Gipuzkoan piztu nahi balute bezala Italian ondo ezagutzen duten “*Emergenza rifiuti*” egoera, azkenean nazkatuta herritarrek amore eman dezaten.

Errauste plantak 2015-2019 legealdia markatuko du Gipuzkoan. Erraustetaren lobbyak aurreikusitako labeak oraingoa izan dezake azken aukera. Aurrean edukiko ditu herritar asko. Erraustetaren Aurkako Mugimendua –izen hori jarri diote Koordinadora, Zero Zabor talde eta hainbat plataformak osatutako batzarrari– biziberrituta agertu da. Donostialdean otsailaren 28an ikusiko den mobilizazioak hala erakutsiko du.

Añorgako Rezola porlan fabrika:

ERRAUSKETA ONKOLOGIKOAREN SUDURRETAN

Gipuzkoar gehienek ez dakiten arren, dagoeneko hondakinak erretzen ari da zementu fabrika bat Donostiako Añorgan, udaletxetik bezala Zubietako erraustegiaren 0 eremutik 4,5 kilometrora. Kilometro eta erdira dauzka: Poliklinika, Onkologikoa, Donostialdeko hiru ospitaleak, EITBren egoitza eta Batzar Nagusiak. Hernaniko eta Lasarteko udalak 2,6 kilometrora.

2015eko urtarrilaren 19an donostiarrak beren danborrak prestatzen ari ziren ordu berean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen zuzendari Alejandra Iturriozek hondakinak erretzeko 2008tik daukan baimena zabaldu eta lasaitu zion Sociedad Financiera y Minera S.A.ren (gaur Italocementi multinazionala) Rezola porlan fabrikari.

Urtean 635.000 tona porlan ekoizteko gai den Añorgako produkzio katean hiru gunetan erre ditzakete hondakinak. Hasteko, porlana egiteko lehengai gisa erretzen dira, harri, kare eta abarren orde. Rezolak labean bota ditzake, beste fabriketatik ekarrita: egur edo biomasaren erraustak, siderurgiako eskoriak, gasak filtratzeko erabilitako lohiak, araztegiatiko lohiak erretzetik sortutako erraustak eta abar. Hondakin kopuru handienak balorizazio materiala deitzen den atal honetan erre ditzake eta kiskali ondoren porlanarekin nahastuta ateratzen dira fabrikatik.

Bigarrenik, porlana ekoizteko erregai gisa erabili ditzakete “ez arriskutsutzat” katalogatutako hondakinak: haragi irinak, egur, zerrauts, txirbil eta antzekoak, pneumatiko zaharrak, auto zaharren osagai ez metalikoak, araztegiatiko lohi idortuak, bestelako plastiko eta kautxuak, bestelako hautsak, gaika edukiontzi horian bildutako ontzi arinen soberakinak... Horietatik Rezolak 39.900 tona erre ditzake urtean.

Baina, gainera, Rezolak erregai modura erabili ditzake hondakin arriskutsuak ere, baimenak espresuki aipaturik: “*Residuos peligrosos admitidos como combustibles alternativos*”, beren osagaietan

substantzia arriskutsuak daramatzatenak. Baimenak zehazten duenez, CDR (Hondakinetatik Eratorritako Erregaiak, gaztelaniazko siglatan) horietan nahastuta joango dira lohiak, pinturak, bernizak, disolbagarriak, tintak, argizari industrialak, koipe eta olioak, eta abar.

» Eusko Jaurlaritzak hondakinak errausketak eragindako dioxina, furano, metal astun, HF eta beste kutsagarrien kontrolak arindu dizkio Rezolari 2015eko urtarrilean

» Añorgako Rezolak milaka tona hondakin industrial erretzeko baimena dauka: pneumatikoak, autoen pieza ez metalikoak, araztegiatiko lohiak... eta baita hondakin arriskutsuak daramatzaten CDRak ere

2015eko urtarrileko aldaketarekin, hondakinak zerrenda luzatzearekin batera, bigarren aldaketa bat onartu dio Jaurlaritzak Rezolari: aurreko baimenean eskatzen baldin bazitzaion erregai klasikoen artean (petrolio-kokea eta abar) zaborrak ere sartzekotan horiek eduki behar zutela gutxienez kiloko 2.000 kilokaloria sortzeko ahalmena, orain aski dute 1.500 kilokaloria sortzen dutela argudiatzea labeen kiskaltzeko.

Kutsaduraren kontrolak arindu

Hirugarren aldaketa handia, hondakinak errausketak eragindako kutsaduraren kontrolak arindu zaizkiola enpresari. Munduko Osasun Erakundeak oso arriskutsutzat jotako gai kutsakorrez ari gara, dioxina, furano, metal astun, azido fluorhidriko (HF) eta abarrez.

Aldaketok onartu dizkio Jaurlaritzak: azido fluorhidrikoa ez du uneoro jarraian neurtu behar 2008ko baimenean agindu bezala, urtean bitan egitea aski du; dioxinak eta furanoak urtean lautan neurtzea agindu bazioten 2008an, orain aski du urtean bitan neurtuta; metal astunen kontrola urtean lautan egiteko orde orain urtean behin eginda aski du. Horiek Rezolako tximinian. Bestalde, enpresak fabrika aurrean kutsadura neurtzeko daukan etxolan partikulak eta SO₂ lehen bezala uneoro neurtu behar ditu, baina dioxina eta metal astunen neurtzea arindu dio urtean behin izatek hiru urtean behin gitea.

Baimenak badu beste xehetasun deigarri bat gehiago. Nitrogeno oxidoei buruz, tximiniatik ateratako metro kubo bakoitzeko 800 miligramo NO_x isurtzea



Cementos Rezolak Donostiako Añorgan daukan fabrikaren labe eta tximiniak ageri dira Miramon parke teknologiko ondotik hartutako argazkian.

DANI BLANCO

baimentzen dio Jaurlaritzak Rezolari 2015eko urtarrilean. Baina 2013az gerotik Espainiako Gobernuak erabakita dauka –Europako legediari egokitzeko– muga metro kuboko 500 miligramotan ezartzea 2016ko urtarriletik aurrera.

Kontrol eta neurketa guztiak ez ditu Eusko Jaurlaritzak egiten, enpresak berak hautatzen du zein aholkularitza-enpresa kualifikatuk kontrolatuko dizkion kutsadurak, gero administrazioari jakinarazteko.

2015ean Eusko Jaurlaritzak emandako baimen berria, 51 orriko dokumentua, Donostiako herritarrek ez dute

ezagutzen, publiko egin ez delako: internetez ezingo dute aurkitu. ARGIA eskuratu du kopia bat eta interneten eskegi. Zergatik ez ote da publikoa, galdetu dugu Jaurlaritzan. Erantzuna: “Legeak baimen bateratuak argitaratzeko beharra ezartzen du, baina haren aldatetarik notifikatu egin behar dira”.

Eusko Jaurlaritzak Rezolari hondakinak erretzeko baimena 2008an eman zion, justu Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuenean hiri hondakinentzako erraustegi bakarra eraikitzea abandonaturik Txingudin bigarrena egiteko asmoa. Enpresaren eskaritik Jaurlari-

tzaren ebazpenera arteko prozesua zalaparta handirik gabe pasatu zen Añorgako labearen kasuan.

Donostiako Udalak (PSE, Odon Elorza) ez zuen alegaziorik egin 30 eguneko legezko epean. Objektzioak aurkeztu zituzten bakarrak – baimenean bildu zenez– izan ziren Julia San Jose medikua Errausketaren kontrako Koordinadorako ekintzaile ezaguna, Ekologistak Martxan eta Añorga Txikiko auzo elkarteak. Baimena, azkenean, Ibon Gallarraga Gallastegi sailburuordeak sinatu zuen 2008ko maiatzaren 8an. Esther Larrañaga zuen Ingurumen sailburu. ■

bardoak²⁰¹⁶

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



bertsozalea



OTSAILAK 26, OSTIRALA
Leitzako Atekabeltz gaztetxean
Bertso-saioa

ATEKABERTS

(Leitza)
Ander Fuentes "Itturri"
Joanes Illarregi
Xabat Illarregi
Migel Mari Elozegi "Luze"

UNIBERTSOLARIAK

(Lesaka)
Josu Sanjurjo
Jose Juan Zubieta "Etxabe"
Jon Silveira
Iban Garro

Informazio osoa eta sartuerak

WWW.BERTSOZALE.EUS

Kazetariak mehatxupean

TURKIAK EZ DU TRAIIDORERIK NAHI

Erdoganen gobernuak gero eta jarrera autoritarioagoa du oposizioko indar guztien aurka. Komunikabideak dira bere jomugetako bat, eta ez bakarrik kurduak, orain arte bezala. Adierazpen askatasuna urratzen ari dira, modu sistematikoan.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Anakoz Amenabar / Iñaki Larrañaga

@anamenabar / @inakilarra

Mahai gainean pilotuta dauzka Turkiako presidente Recep Tayyip Erdoganek herrialdeko arazo ugarien karpetak –Ipar Kurdistanen gerra, ISISen atentatuak, gatazka diplomatikoak, ustelkeria, esku-bideen aldarrikapenak–, eta hala ere badauka sistematikoki komunikabideetan esku hartzeko astia ere. Edo, hain zuzen ere, gatazka horiek mozorrotzeko behar ditu kontrolpean kazetariak. Izaera kontua ere bada. Sultan anbizioa duen lide-raz ezin ditu kritikak jasan.

Urrutira joan gabe, 2015eko amaieran, kazetariak espetxeratu dituzte, telebista debekuak ezarri –azkena, joan den asteko Anakarako atentatuaren ondotik– eta erredakzioak harriatu dituzte gobernuaren aldekoek. Prentsa askatasunaren sailkapenean Turkia 149. tokiraino jaitsi du Mugarik Gabeko Kazetariak elkarteak; Maroko, Palestina edo Mexikoren atzetik. “Arraroa da”, dio Stefan Martens *Hurriyet Daily News*-eko editoreak. “Ez daukagu pistolarik kotean... baina, diotenez, munduko demokraziarik autoritarioenean bizi gara, edo erregimen autoritario askeenean”.

Hurriyet Turkiako egunkari erreferentea da, bigarrena irakurle kopuruan eta, orain arte, Erdoganen alderdiaren AKP gobernuarekin kritikoa. Autoritarismoa eta islamaren neurrigabeko hedapena kritikatu dute. Jarrera hori larrutik ordaintzen ari dira orain.

Istanbulen kanpoaldean dauka *Hurriyet*-ek egoitza nagusia, Dogan konpai-

niako beste hedabide batzuekin batera. Ezohiko segurtasun hesiak igaro behar dira lantokira sartzeko: burdinazko ate automatikoa, polizia *Heckler & Koch MP5* metrailleta soinean, guardia pribatua, metal detektagailua... Gaztelu eta espetxe, bietatik du asko punta-puntako erre-dakzio modernoak. Irailaren 7ko gertakizun larriek gotortu zuten eraikina.

Iluntze hartan dozenaka furgoneta gel-ditu ziren *Hurriyet*-eko egoitza parean. 150 lagun inguru zeramatzaten. Harriak esku batean, Turkiako banderak bestean, aterantz jo zuten. Zalapartaren erdian baita AKPko parlamentari bat ere. “Lezioa merezi genuela zioten”, gogoratu du Martens kazetariak, “jada Turkian ez duelako *Hurriyet*-ek agintzen”. Sarreran txikizioa eragin zuten. Kristalak apurtu zituzten, baina ez ziren barruraino sartu. Ez zen azken eraso izan. Bi egun beranduago, Ahmet Hakan zutabegile ospetsua *Hurriyet*-etik etxeraino jarraitu zuten eta kalean bertan jipoitu. Abenduaren 25ean, kazetaren zuzendari Sedat Ergin-en kontra bost urteko espetxe zigorra eskatu zuen fiskaltzak, Erdogan iraindu zuelakoan. “Presio handia du gainean, ez du elkarriketarik eskainiko”, ohartarazi dute egunkariko lankideek.

“Bi bandotan zatituta daude kazetariak: AKPren aldekoak eta aurkakoak. Gobernuaren irizpideak hitzez hitz jarraitzen dituztenak eta mehatxupean daudenak”. Ilya Topper *M’Sur*-eko kazetariak argitu du hori: “Atzerriko hedabi-



deetan ari diren turkiarrak traidoretzat dauzkate”. Beste korrespontsal beterrano batek –segurtasunagatik nahiago du izena ezkutuan mantendu– uste du gero eta gutxiago direla hedabide nagusietan gobernuak kritikatzeko dutenak. “Argi hitz egiten dutenak ausartak dira, aitortu behar zaie. Espetxean daude asko”.

Begiraleen salaketa

Urte hasieratik kartzelan daude, esaterako, itzal handiko bi kazetari: Can Dunder eta Erdem Gul, *Cumhuriyet* egunkariako editoreak. Zerbitzu sekretuei buruzko erreportaje bat publikatu zuten. Espioitza eta traizioa egotzita, bizitza osoko espetxealdia ezarri nahi diete. Nazioarteko eta etxeko kritikak gorabehera, Erdoganek jendaurrean emandako hitza bete zuen: “Garesti ordainduko dute artikulua honen egileek”. 30 kazetari inguru dauzkate espetxeetan gatibu.

Europako Giza Eskubideen Auzitegiek ondo ezagutzen dituzte Ankarako erakundeen urraketak. Turkia da Estrasburgoko epaiketetan gehien aipatzen den herrialdea, auzi guztien %18 bertatik dator, Kurdistandik batez ere. Jakinarazi duten azken epaia komunikabideen esparrukoa da. *Nokta* aldizkari-ko kazetarien alde egin du auzitegiak, adierazpen askatasuna urratu zietela ebatziz. 2007an artikulua batengatik atxilotu zituztelako 4.000 euroko kalte ordaina ordaindu beharko dio estatuak bost laguni.



Giro politikoa arnastu ezinezko bihurtzen ari da askorentzat. Lubaki banatan daude batzuk eta besteak, AKPkoak eta gainontzekoak. Istanbulgo Beyoglu auzoko taberna baten jabeak etsipenez dio, “kalean hotz egiten du, baina giroa sutan dugu Turkian. Honek horrela jarraitzen badu, dena pikutara joango da”. Beste hitz batzuekin, *Human Rights Watch*-ek ere berriki salatu du egoera: “Oposizioari beldurra, kritikari ikara eta eskubideak aldarrikatzen dituztenei izua. Lekuko izan gara. Azken urtean giza eskubideen hondatze handiena bizi izan dugu”. Gauza zaharra da, edonola ere, batez ere kurduak pairatu dutena, baita beste gutxiengo etnikoek ere.

Hrant Dink kazetari armeniarren omenaldiak ehunka lagun bildu ditu urtarilaren 19an, 9 urte bete dira bi tiroz hil zutenetik Istanbulgo etxe atarian. Justizia eskatzen duten oihuekin bat, “AKP faxista” da lelorik entzunena. Tayyip Erdogan izena hainbatetan entzun da bozgorailuetatik. Zigor sententziarik gabe ere, hatz guztiek presidentea seinalatu dute arduradun.

Erdogani parean jarri zaion edonork gorriak eta bi ikusi ditu, kultura mundukoak, akademikoak –18 irakasle atxilotu dituzte bakearen aldeko manifestua sinatzeagatik–, enpresariak edo kazetariak izan. “Kazetaritza akabatzen ari dira. Poliki-poliki demokraziarenak ere egingo du”, idatzi du Kadri Gürsel zutabegile turkiarrek. Iritzi hori gizartearen hedatua dagoela



baiezatu berri du Kadir Has Unibertsitateko lan batek. Turkiarren %59,7k uste du prentsa askatasunik ez dagoela. %56,5 dira demokraziarik ez dagoela diotenak.

Komunikabideek jasotzen dituzten presioak modu sotilean garatzen dira gehienetan. Zigor ekonomikoak, boikoterako deiak, presidentea iraintzearen salaketak, hedabideen jabego aldaketak... “*Milliyet* egunkari kritikoa saltzera behartu zuen gobernuak, *Sabah* kazeta ere Erdoganen meneko enpresari batek erosi du, *Zamam* egunkariko zuzendariak 14 hilabeteko espetze zigorra du presidentea iraintzeagatik”, zerrendatu du Andres Mourenza *El País*-eko korrespontsalak. “*Digiturk* telebista urrian debekatu zuten eta *Kanal 7* telebista Erdoganekiko kritikoa zen, haren jabeari aireportu bat eraikitzeke baimena eman zioten arte”.

Emititzen jarraitzen dutenek gobernuaren oharrak jasotzen dituzte aldiro, Sultanahmet-eko atentatuen irudiak debekatzetik “familia tradizionalaren baloreen” kontra doazen emisioak zigortzeraino. Mendebaldeko herrialde guztietan bezala, telebista da oposizioaren erasoetatik zaindu beharreko organo nagusia. Komunikabide tradizionalak gain, Turkiak interneten gaineko kontrol neurriak hartu ditu. Twitter, Facebook edo Youtube atariak blokeatu ditu hainbatetan, baita Kurdistango informazioa eskaintzen duten webguneak ere. “Sare sozialak dira gizartearen mehatxu handiena”, esan zuen Erdoganek Gezi

Turkia prentsa askatasunaren sailkapenean 149. tokiraino jaitsi du Mugarik Gabeko Kazetariak elkarteak, Maroko, Palestina edo Mexikoren atzetik. Goiko eskuineko argazkian, Hrant Dink kazetariaren omenaldia, urtarilaren 19an.

» Erdogani parean jarri zaion edonork gorriak eta bi ikusi ditu: kultura mundukoak izan, akademikoak, enpresariak edo kazetariak

parkeko protesten traolek 2013an Twitterren gainezka egin zutenean.

CNN Turk telebistari gertatu zaionak ederki irudikatzen du komunikabideak estutu eta liderra babesteko obsesioa. Albistegietan kontatu zuten nola CHP alderdi sozialdemokrataren presidentea auzipetua izan zen “erdipurdiko diktadore” deitu ziolako Erdogan. Bada, *CNN Turk*-en errotulu batean zera idatzi zuten, kakotx eta guzti: “Diktadorea’ auzitan”. Telebista katea bera da orain fiskaltzaren ikerketapean dagoena, hain zuzen ere, errotulu horrekin, Erdogan iraintzeagatik. ■

Emakume transexualak

JOKO OLINPIKOETAN LEHENENGOZ ARITZEAK HAUTSAK HARROTU DITU

Kirolari transexualek aurrenekoz parte hartu ahal izango dute Joko Olinpikoetan, sexu aldaketa egiaztatuko lukeen mediku operazioa egin beharrik izan gabe, COI nazioarteko olinpiar batzordeak iragarri duenez. Berdintasunerako urratsa dena batzuentzat, emakumezko atletak zigortzen dituen aldaketa da besteentzat.



Jon Torner Zabala

@jtorner

Aldaketaren inguruko zalantza agertu dutenek diote emakume transexualak abantaila egoeran jarri dituela COIk, lehiakide izango dituzten nesken aldean gaitasun fisiko hobea –gizonezkoengandik hurbilago dagoena– izango dutelako, BBC-k plazaratutako *Bidegabea al da atleta transexualei emakumezkoen probetan lehiatzen uztea?* erreportajearen irakurri daitekeenez. Koska bat gorago izango omen dira, nahiz eta zenbait baldintza jarri dizkieten, esaterako: urtebete lehenago eman beharko dute euren asmoen berri, eta denbora tarte horretan testosterona maila 10 nmol/L azpitik mantendu beharko dute. Gizonezko transexualei ez zaie halako kondiziorik ezarri.

COIren aholkulari moduan aritu den Joanna Harper mediku eta korrikalariaren hitzetan, sexua aldatu izana aldeko izango dute kirol batzuetan, saskibaloian adibidez, jokalariaen altuera garrantzitsua den heinean. Dena den, diziplina ugaritan ez du inolako eraginik izango. Are gehiago, batzuetan, gimnasia tartean, kontrako gertatuko zaie.

Harper, emakume transexuala, konaturatu zen sexuz aldatzeko hormona bidezko terapia hasi zuenean geldoago egiten zuela korrika. Ez berak soilik. Iraupen luzeko probetan aritzen ziren zortzi kirolari transexualen markak aztertutik zuten, gizonezkoak zirenean lor-



Natalie van Gogh txirrindularia (erdian), iazko Belgikako Lotto Tour-eko 1. etapa irabazi zuenean. Bera izan liteke Joko Olinpikoetan parte har dezakeen lehenbiziko kirolarietako bat.

GEERT

tutakoak batetik, emakume gisa lehiatzean lortu zituztenak bestetik. Sexua aldatuta, marka apalagoak lortu zituzten zortziek, emakumezko gainerako atleten parekoak, ez kaskarrago ez hobeagoak. Adibide moduan beste bi kasu jarri ditu: 1970eko hamarkadan, Renée Richards tenisleria lehen itzulian kanporatu zuten US Open txapelketatik; gaur gaurkoz, Fallon Fox borrokalaria oraindik ez du MMA Arte Martzial Mistoan elitera heltzerik izan. Emakumezkoen Kirolen Fundazioa ere iritzi berekoa da: “Gizonetik emakumerako trantsizioa burutu duen atletak [hormona-tratamendua egin duenak], lehiakide dituen nesken pareko indar eta ahalmenak dauzka”.

Abuztuaren 5ean hasiko diren Rio-ko (Brasil) Joko Olinpikoetan parte har dezaketen atleta transexualen artean Natalie van Gogh eta Michelle Dumaresq ziklistak eta Chris Mosier triatleta daude. Aitzindariak lirarteke, nahiz eta Caitlyn Jenner atletak urrezko domina irabazia zuen (1976an) artean Bruce Jenner zenean; eta Balian Buschbaum alemaniarra, pertika jauzian 6. amaitu zuen 2000ko Joko Olinpikoetan, artean Yvonne Buschbaum zenean. 2007an, sexua aldatzea erabaki zuenean, kirola utzi zuen alemaniarra. Aitzindari dugu, halaber, Antia Fernandez, kirol olinpiko batean debuta egin duen Espainiako Estatuko lehendabiziko pertsona transexuala. ■

ANTIA FERNANDEZ, BOLEIBOL JOKALARIA

“EMAKUME IZATE HUTSA OZTOPO DA IKUSGARRITASUNA ETA BERDINTASUNA LORTZEKO”

“Pauso bat aurrera eman du COIk. Zoritxarrez, kirol olinpikoa bezalako esparru profesionalizatu eta lehiakor batean, eztabaida eta desadostasun iturri bilaka liteke. Operazioa egina duen atletak bere alde izango du puntu hori. Ez da ezinbesteko baldintza, baina ziur naiz kirolari transexualek egoera deseroso askori egin behariko dietela aurre”. Antia Fernandez galiziarraren hitzak dira, kirol olinpiko batean ari den Espainiako Estatuko lehendabiziko pertsona transexuala. Galiziako Calasancias boleibol taldean ari da.

Mikel Ibargoinen Info7 irratiko *Kirol Leihoa* saioaren gidariak elkarrizketa mamitsua egin dio. Pasarte batzuk ekarri ditugu hona:

Poztasun ikaragarria

“Debuteko egunean [duela hilabete] urduri samar baina izugarri pozik nengoen. Taldekideek batere arazorik gabe onartu naute. Zelaia ateratzean neskatala sentitu nintzen berriro, bere ametsa betetzetik izan ez zuen ume hori. Pozik nengoen maila pertsonalean lortutakoagatik, baita balio izan duelako ere atek irekitzeko kolektibo bati zeinarentzat ez den erraza sozialki integratzea, ez lan merkatuan, eta are gutxiago kirolean, non emakume izate hutsa oztopo den ikusgarritasuna eta berdintasuna lortzeko”.

Emakume jaio nintzen

“Emakume sentitu naiz beti. Bost urterekin neska izena izan nahi nuela esan nuen. Etxekoek ez ninduten ulertu. Identitate maskulinoa eman diogun umea bere buruz emakume moduan hitz egiten entzuteak txinpartak sortzen ditu buruan. ‘Bi urte besterik ez ditu baina hau konpondu beharra daukagu’, diote ingurukoek. Bi urteko haurrak transexualitatearen kontzeptua ez du argi, bere identitatea zein den orde bai, hasieratik bertatik”.



MARCA.COM

Matxitoen artean deseroso

“14-15 urterekin integratua ez nengoela sentitzen nuen. Mutilen artean nengoe-la *matxito* gisa hasten zirenean, oilarrik handiena nor, hankarteko erregeaz hitz egiten, etengabe konparazioak eginez, sobera nengoela konturatzen nintzen. Behin txantxetan esan nien: ‘Begira, zentimetro faltan baldin bazaude, nik emango dizkizuet, sustraitik puntaraino’. Broma zen, baina benetan diot oso osoa oparitutako niekeela. Aldageletan deseroso sentitzen nintzen, baita leiho atzetik neskak zelataztera joaten zirenean ere. Haiekin nindoan beti, baina nire asmoa zen zarataren bat egitea neskak ohartarazteko. Inkontzienteki feminista izaten hasi nintzen. Beste neskak babesten nituen, haien pribatutasuna defendatu nahi nuen”.

Identitatea azaleratzea, suspergarri

Adinez nagusi izatean basektomia egiteko unea heldu zela ikusi nuen. 2014an medikuaren lehendabiziko kontsultatik ateratzean jabetu nintzen pausoak eman behar nituela, soinekoak jantzi-eta. Transexualengan bada ohiko sentimendu bat, disforia, norberarekiko, gorputzarekiko gorrotoa eragiten duena, garunak esaten digunaren kontrakoa ikusten dugulako. Soinekoa jantzi, kalera atera eta niri buruz emakume gisa hitz egiten hasi

nintzenean, poztasuna erabatekoa zen, irribarrez nengoen uneoro. Gizarteak zure kontura barre egitea gogorra da, baina hain zaude pozik, ezerk ezin zaituela goibeldu. ‘Inork ez nau gehiago zangozabatu jada’, pentsatu nuen”.

Edozein herritarren eskubide berberak

“Nortasun agiri berria lortu nuenean boleibolean jokatu ahal izateko atek jotzen hasi nintzen. Ezezkoak jaso nituen, eta ez nekien ziur zergatik ote

zen, ni taldean izaterik nahi ez zutelako, ala soilik legeak esandakoa betetzen ari zirelako. Gero jakin nuen boleiboleko federazioak Espainiako transexualitateari buruzko araudia jarraitzen zuela, eta nahikoa nuela NAN berria aurkeztearekin. [Espainiako legediaren arabera, adinez nagusi diren herritarrek euren NANetan izena eta sexua alda dezakete mediku-operazioa egin beharrik izan gabe, baldin eta genero-disforia pairatzen dutela egiaztatzerik badute eta bi urte badaramatzate hormona-tratamendua jasotzen]. Edozein pertsona ez transexualen eskubide berberak ditut. Batzuek oraindik inposatu egin nahi digute zer sentitzen garen, nor garen. Talde batzuetako ordezkariak mediku txosten eta gauza zentzugabe piloa eskatzen zizkidaten”.

Bada garaia libre izateko

“Lan-merkatu sartzu edota etxea alokatzean oztopoak jarriko dizkigute, taberna batzuetan irainduko gaituzte, baina ez naiz etxean geratuko, ez dut albo batera egingo, kalean ikus nazatela. Gure presentzia normalizatu nahi dut. Madril bezalako hirietan ohikoagoak gara agian, baina nik ez dut Coruña-rik alde egin nahi. Borroka egin eta irabaziko dut. Hiriak etsi beharko du, ez nik”.

'Bost truke' liburua

EUSKARA JENDEAK ANDEETAN, KURDISTANEN ETA SERBIAN

Ez dago nahi gabe idazten duenik, nahiz eta harrabotsik gabe heldu zaigun irakurleoi Jon Sarasuaren *Bost truke* (Pamiela, 2015). Hizkuntza kooperazioa helburu, hara eta hona egindako bidaiak eta, are, han-hemen ezagututako hizkuntza-jendeak gogoeta iturri zaizkio. Munduaz pentsatzeko modu hoberik ez.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: GARABIDE

Asko usteko ez zuela, bost herrialdetan izatea –ez besterik gabe, postalik postal ibiltzea, izatea baizik–, egokitu zitzaion Jon Sarasua irakasleari 2014ko maiatzetik 2015eko apirilera. Gutiz gehienetan hizkuntzaren gaineko elkarlanak deiturik jo zuen Garabideko kideak Kolonbia, Bolivia, Kurdistan, Ekuador eta Serbiara. Sarasuak berak dioskunez, "hiztun komunitateetako muineko geruza antolatuekin epe luzeko bidaietza egitea da gure iparra, zubi iraunkorrek sortzea". Egiteko gaitzak eraman du Sarasua bost herrialdeotara, eta herrialdeak izendatuagatik ere, muinean zalantza du Garabidekoak, zapaldu dituen herrialdeen izenak izendatu behar dituen "ala nasekin, kitxuekin, kurduekin... izan naizela jartzea dagokidan. Bolivian gobernukoekin jardun nuen eta hiztun komunitate desberdinetakoak ziren tarteetan. Eta orduan zergatik ez esan kurduekin ze estatutan egon naizen? Kurdistan sartzen badut, zergatik aipatu Ekuador eta ez kitxua herria? Eta abar. Euskaldunen burujateak". Horratik, ez du izango burujate ez burutxikitze bakarra, liburuan askoz ere gehiago baitira zinezko zalantzak azpildurarik gabeko ziurtasunak baino. Sarasuarenak ez ezik, belaunaldi oso batenak litezke ziurgabetasunok.

Hiztunpolisa (Pamiela, 2013) argitaratu eta han zurian beltz jarritakoak defendatu eta zabaltzetik dator Jon Sarasua, baina honako *Bost truke* hau, aldiz, aurrekoago baten uztarrikoa da, *Ertzeko zatiak* (Argia, 2010) lanaren eite bereko, Brasilera-eta egindako lan-bidaetan batutako oharrez osatutako liburuaren bizki. "Ustekabean urtebeteko epean bost apunte sorta desberdin pilatu zirenean, liburu bat atontzeko moduko zirkulua osatu zela sentitu nuen, truke-lan horien instantanea gisan, urtebeteko jasokinen argazki moduan".

Diskurtsoetatik harago

Sarasua ez da entzule soil joan jendar-teotara. Beti da hizlari, eta hizlari bezainbat entzule nahiz ikastari. Itzulian, gisako gogoetak ekarri dizkigu, parteka ditzagun, nahieran.

Eta zergatik da, lehenik, euskalduna bateko eta besteko foroetan solaskide? "Zergatik? Ze 'meritu' dauka euskararen herriak esker on eta erakarpen hori sortzeko? Gure hizkuntzaren egoera erdi-purdikoa eta gure 'erromesaldi herrena' ikusita, besteen aurrean eredu agertu behar ote dugu ba? Lotsa apur bat eman behar liguke". Esaterako, horixe izango da liburua, has eta buru, tindatzen duen kolorea: klixe ezarrietatik eta politikoki

zuzen diren hitz eta iritzietatik aienatzeko guztizko borondatea.

Konparazio batera, hizkuntza eskubi-deen lege proiektu bat abiarazten parte hartu du Sarasuak Ekuadorren. Artikulatua osatu dute, atal, kapitulu eta artikulua, eta horretan, Euskal Herriko eskarmentua darama bizkarrean Sarasuak: "Irudikatzen duzue ni bezalako euskalzulo 'sutsu' bat Ekuadorreko taldeak proposatutako artikulua ausartenei beherapenak ezartzen? Zuhur dabil garabidetarra. Lege ona nahi du, inoiz baino hobea, baina salduko dena. Eta gauza handirik jakin gabe ere, bere kartak jokatzen ari da. Eta ikasten, batez ere asko ikasten". Lantzen ari diren testua, alabaina, ez da legea, aurreproiektuaren zirriborroa besterik. "Eta ontasunaren eskala absolutuan, zenbat eta hobea izan [lege aurreproiektua], orduan eta zailagoa da aurrera ateratzea. Halaxe dago hizkuntzen gaia munduan". Hitzean eta hortzean beti "oso garrantzitsua" hizkuntza, baina, egiatan, bigarren edo hirugarren mailako gai agintari politiko nahiz herri eragile askoren agendan. Kitxuena da kexua: "Borrokari ari diren buruzagiek ez diete transmititzen hizkuntza seme-alabei". Orain ere esan genezakeen, "halaxe dago hizkuntzen gaia munduan", eta Euskal Herrian.



Diskurtsoetatik harago, beti

Beste batean, Kolonbian, hitzaldia egin ondoren lekuko mutu ikusiko du bere burua Jon Sarasuak. "Hitzaldiaren ondorengo galdera, iruzkin eta mini-diskurtsoetan hartzen du batek bere inpaktuaren tenperatura. Gaur gehienak ihes egin dit, nasaz jardun baitute gehienek, bereziki zaharrenek". Arbelean *querer* hitza handiz idatziz ekin dio bere tarteari Sarasuak: "... eta galdetu dut ea zer den benetan nahi dutena, zer izan nahi duten. Baliteke nasak izaten jarraitu nahi izatea, eta baliteke nekazari kolonbiar izan nahi izatea. Biak dira zilegi. Baina zer nahi du bakoitzak benetan, diskurtsoetatik harago? Isiltasuna egin dut minutu pare batez". "Nahi", zer nahi du bakoitzak, zer nahi dugu guk denok batera?

Arestian hizpide hartu dugun hitzaldia egin eta egun batzuetara, Kolonbian barna, indigenen eta gobernuaren arteko negoziazio garaian fortunatu da Sarasua. Biltzarrak egiten ari dira indigenak, eta iparraldeko biltzarrean da Sarasua. "Hemen ez dago aurreko eguneko komunitateetako jardunaldietan izandako konturik hizkuntza aldetik. Haietan %60 ulertu gabe geratu nintzen. Hemen dena ulertzen dut: 'Egun on' esaten dute nasaz, eta zuzenean harira gaztelaniaz". Han, eta hemen, diskurtsoetatik harago beti.

Sarasuaren *Bost trukeren* meritu eta merezimendu da hotzetatik etorritako inkesta-azterketen, ez aurka, baina haien ondoan, bizidunok ibiltzen ditugun eguneroko bide humanoetatik gu ibilaraztea, hiztun komunitate jakin bateko kide izan nahi dutenen ahal eta ezinak betsarerik gabe bistaratzea, galderak egitea eta erantzuten saiatzea -ez beti-, inguratzen gaituen munduari begiratu eta hura ikustea, arrotzarekin solastatzea, hitza hartuz bezainbat adituz. Sarasuak, muinean, bat egin du nasarekin, aimarekin, kurduarekin, kitxuarekin, eslaviarrarekin. Euskara jendearekin. Orainean bizi da, zangalatraba hizkuntzaren iraganaren eta etorkizunaren artean, errymes. ■

GELDI

Pontificia Universidad Católica del Ecuador-eko irakasle da Marleen Haboud. Hartaz ari da Jon Sarasua: "Badu altxor bat esku artean: herrialdeko azterketa geolinguistiko-soziolinguistikoa (...) hiztun komunitate guztietan ikerketa itzela egin dute, dozenaka pertsona prestatu eta mobilizatuz, komunitate txikietan elkarriketak eginez, inkestatu bakoitza gps bidez geoerreferentziatuz. Hizkuntzen egoeraren argazki aparta egin dute, aurrekaririk gabeko zehaztasun eta sakontasunez. Hizkuntzaren ezagutza, erabilera, transmisioa, jarrerak eta beste hainbat gai landu dituzte elkarriketa bakoitzean. 1.500 elkarriketa baino gehiago bildua dute.

Duela 30 urte antzeko ikerketa egin zuen Haboudek, mendikatean. Hiru hamarraldi pasata, bi argazkiak parean jartzeak asko esaten du.

Estatistiken grafikoak koloretan ikustea ileak tente jartzekoa da. Kitxua elebazarren kopurua, elebidunena eta gazteleradun elebazarrena kolore banatan adierazita, hiru belaunaldiren arteko bilakaera begietatik sartzen da. Ez dago diskurtso handien beharrik: grafiko horiek esaten dute esan beharrekoa. Hizkuntzen egoeraz dagoen (in)kontzientzia lausoa mugiarazteko moduko marrazkiak dira (...) eragin handikoa litzateke ikerketaren sintesia klase politikoak begien aurrean izatea. Jendea falta horretarako. Eta datu gorriak unibertsitatean geldit.



Goiko argazkietan eta azkenekoan Jon Sarasua nasa herriari (Kolonbia) egindako bisitan. Beheko ezkerreko argazkian Kurdistanera egindako bidaiari.

BABESLEA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabalduta da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

www.bizkaia.eus

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

CORRESCALES

ELKARTASUNAREN

ESKAILERAN

KOSKA BAT GORA

Otsailaren 22an iritsi da helmugara Correscales, Bilbo eta Bartzelona lotu dituen prekarietatearen aurkako lasterketa. Movistarreko azpikontratatuaren borroka zehatz batetik abiatu zen mugimendua, urtebete geroago arazo sozial larri bat ikusarazi eta salatu nahi duen ekimen plural eta zabala bilakatu da. Eta ez hori bakarrik: etorkizuneko langile borrokei berebiziko sostengua eman diezaiekeen proiektu solidarioa da.



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIAK: IRANTZU PASTOR

Otsailaren 18ko arratsaldea, Bilboko Buenos Aires kalea, Movistarren dendaren aitzinean. Correscales lasterketa hastear da. Eskailera korritu, euskara baldarrean. Izenak esanahi bete hartu du Movistarreko kontrata eta azpikontratetako langileek egurrezko eskailera luzeak eskuetan hartu eta errepidearen alde bietan jarri direnean, lasterketaren lehen metroak egiteko alegiazko bidea osatuz. Eta hor abiatu da Correscales, Korrika Prekarioa, beste Korrikak bezala lekuko bat duela ezeren aurretik. Oraingoan baina, telefono urdin bat da. Barruan mezua du, euskararen aldekoak izan ohi duen bezala; haatik, honen gaia ez da hizkuntza, langileen duintasuna baizik. Pertsonena, uler bedi.

“Eskailera gure lan tresna nagusia da, eta gure borrokaren ikur bihurtu dugu”, esan digu egun batzuk lehenago, askoz giro lasaiagoan, Aitzol Ruiz de Azua bartzelonarrak. Movistarrentzat lan egiten duen Ecotronic kontratuko behargina da Ruiz de Azua. Marea Urdineko kidea ere bada, hau da, Movistarreko greba batzordekoa.

Telefonica ahalguztidunaren aurka

2015eko martxoan Telefonicaren marka komertzialerako ziharduten langileen greba izan zen historia honen abiapuntua. Madrilen lehenengo, handik gutxira Espainiako Estatu osoan. Grebak Bartzelonan izan zuen indar handiena, “urtetako lanaren ondorioz ehun sindikal sendoa osatuta geneukan eta”. Movistarreko kontrata, azpikontrata eta “autonomo faltsuek” hilabete bi eta erdi eman zuten greban. “Hasieran uste genuen beste edozein greba baten modukoa izango zela”, oroitzen du Ruiz de Azuak, “hau da, lanik ez eginez enpresari kalte egingo geniola, baina konturatu ginen Telefonicari aurre egiteko horrek ez zuela balio; Telefonica irabazi eskergak dituen multinazionala da, oso zaila da bere aurka borrokatzea”.

Enpresari bost axola dirua galtzea, baita bezeroak hornidura gabe uztea ere, Ruiz de Azuaren berbetan. “Irudia zen haien kezka bakarra”. Hasieran irudi hori ez zen bereziki ahulduta suertatu, grebalariei kostatu baitzitzaien hedabideetan txoko bat eskuratzea. Movista-



rrek Bartzelonan duen denda nagusia okupatuz –hortxe paratu zuten Correscalesen helmuga– lortu zuten egoera aldatzea. Aldi berean, mobilizazio esanguratsuak izan ziren beste leku batzuetan, batez ere Bilbon. Ekintza horien bidez lortu zuten konpainia negoziatzera bultzatzea, baina emaitza ez zen nahi bezain ona izan, Katalunian behintzat –Euskal Herriko grebalariek akordio hobia lortu zuten– eta horregatik askok greban jarraitu zuten. Bartzelonako dendako okupazioa amaitu zenean ondorioak ezagutu zituzten: langile kale-ratuak, zerrenda beltzak...

Herri mugimendua bidelagun

Borroka horrek elkartasun oldea eragin zuen. Grebak luze jo zuen, eta erresistentzia kutxa sortu zuten langileek eutsi ahal izateko, Coop57 finantza-zerbitzu etikoak emandako interesik gabeko mailegu baten bidez. Guztira,



» Erresistentzia-kutxako zorra itzultzeaz gain, azpikontratazio politikaren erruz zatiketa egoeran dauden langile kolektiboei laguntzeko funtsa sortzea erabaki zuten

» **ERNEST GUTIERREZ:**
“Inork ez dezala greba mugagabea egiteko aukera baztertu bitarteko faltagatik”



BRAIS GONZÁLEZ

Bartzelonako Movistarren denda nagusiaren okupazioa, 2015eko udaberrian.



Correscalesen hasieran egindako argazkien bilduma.

DUINTASUNAREN HAMAICA AURPEGI, LASTERKETA SOLIDARIOARI HASIERA EMATEKO

67.200 euro jaso zituzten Katalunian. Euskal Herrian, berriz, 7.000 euroko beste erresistentzia-kutxa bat eratu zuten. Kopuruok itzultzeko epe malguak eman zitzaizkien grebalariei, hiruzpalau urtekoak, baina ez zuten hain luze itxaron nahi izan, "ereinda geneukan hori hoztu egingo baitzen", Ruiz de Azuaren esanetan. Bestelako proiektu bat eraikitzen hasteko baliatu nahi izan zuten egoera, eta huraxe izan zen Correscalesen hasia.

Nola lortu da Marea Urdinaren borroka zena hain denbora laburrean dozenaka talde eta ehunka lagun biltzen dituen egitasmo bihurtzea? Gakoetako bat Ernest Gutierrez Correscaleseko koordinatzaile teknikoak eman digu: "Bartzelonan denda okupatu zutenean, ez ziren bakarrik sartu". Movistarreko grebak atxikimendu ugari izan zituen hasieratik, bistan dena: nolabait, lozorroan zeuden borroka zahar batzuk berpiztea lortu zuen, Gutierrezen aburuz. "Bazekarren M-15aren oihartzun halako bat, baina batez ere batzuei 2000. urteko globalizazioaren aurkako borroka ekarri zigun gogora".

Correscalesen izenari itsasteko adjektibo bakarra aukeratu behar bagenu, beharbada "kolektibo" litzateke egokiena. Movistarrentzat lanean dabilzan kontrata eta azpikontratetako langileen borrokak halako batean muga gainditu eta dozenaka talderen atxikimendua erakartzea lortu zuenetik, askoren indarrak etengabe batuz joan da orain Correscales izenarekin ezagutzen dugun ekimena, eta hori ondo islatu zen lasterketari hasiera emateko Bilbon egindako ekitaldian.

Ehunka lagun bildu ziren Buenos Aires kalean, dozena erdi inguru poliziak babes-tutako Movistarren dendaren aurrean. Nola pankartetan hala euretako askok soinean zeramatzaten bularreko karteletan, prekaritatearen hamaika aurpegien aurkako salaketa irakur zitekeen, eta beste horrenbeste duintasun aldarri. Behin ekitaldia hasita, Correscalesen lehen kilometroetan lekukoa eraman behar zuten taldeak banan-banan izendatu zituzten, eta horietako ordezkari bana azaldu zen oholtzaren aurrera. Feministak, gazteak, ekologistak, langabetuak, pentsiodunak, antimilitaristak...

"Berriro ere kaleetan prekaritatearen aurka egingo dugu topo" esaldiarekin

hasi zen gero lekukoan –telefono forma-ko pieza urdina– sartu zuten testua, lasterketaren amaieran Bartzelonan irakurri zuten testu hirueledun bera. Euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez, azpimarratu zuten herri mugimenduen parte handi bat han bilduta zegoela, helburu bakarrarekin: "Lan prekaritatearen aurka, irtenbiderik gabe uzten gaituen sistema honen aurka" aritzea. "Kontsumitzaile kontsumituak izan arte behartuko ez gaituen jendarte batean bizi nahi dugu, gure bizi-proiektuak libreki garatzeko, miseriazko soldaten eske ez ibiltzeko, elkartasuna indibidualismo baino gehiago aintzat hartzeko, xantaiak ontzat ez hartzeko".

Eta lasterketa hasi zen, azkenik. Marea Urdineko kideek eskailerekin osatu zuten bidea lehen metroak egiteko, eta Marea Urdinari egokitu zitzaion hain zuzen lekukoarekin aurreneko urratsak egitea. Hasieran lasai, manifestazio arrunt baten gisan –Basaurira iritsi arte ez zen benetan korrika hasi Korrika Prekarioa–, "Tipi-tapa, tipi-tapa, Correscales", "Borroka da bide bakarra", eta "Prekaritatearen aurka" leloak nagusi. Bost egunean 800 kilometro egiteko, hobe presa handirik gabe abiatzea.



Etorkizuneko borroka sustengatzeko funtsa

Arrazoiak arrazoi, Marea Urdinak enpatia handia eragin zuen, eta horri esker lortu zuen hainbat taldetan zebiltzan berrehun pertsona baino gehiagok Coop57k emandako mailegua bermatzea. Horien denen elkarlanaz sortu da Correscales ekimena. "Iraila iritsi zen, eta pentsatu genuen: hau guztia elkarrekin eraiki badugu, itzultzeko ere aritu gaituzen elkarrekin", dio Gutierrezek. Zerbait diferente egin nahi zuten, ordea, diru kopuru jakin bat itzultzetik harago. "Erresistentzia-kutxa bat sortu beharrean, zergatik ez mutualizazio moduko bat?", galdetu zieten euren buruei.

Zehazkiago, Movistarrekoaren antzeko zatiketa egoeran daudenei laguntzeko funts bat sortzea erabaki zuten. "Ez da gauza bera fabrika bateko langileek patroik bakarrarekin negoziatzea, edo langile horiek kontrata, azpikontrata eta azpikontraten azpikontratetan sakanatuta egotea", azaldu du Correscaleseko koordinatzaileak, "baldintza horietan greba bati ekitea askoz zailagoa da". Ekimenaren helburua, azken batean, etorkizuneko borroken sostengurako funtsaren lehen hazia ereitea da, behin Marea Urdinaren erresistentzia-kutxaren zorra kitatuta. "Inork ez dezala greba mugagabea egiteko aukera baztertu bitarteko faltagatik".

Crowfundinga martxan ipini zuten, beraz, bi helbururekin: batetik, aipatutako erresistentzia-kutxen dirua itzultzeko, Correscales lasterketa antolatzeko eta udaberrian estreinatuko duen dokumentala finantzatzeko behar beste lortzea -94.000 euro inguru-; bestetik, funts kooperatibo horren enbrioia sortzea. Bigarren xederako, 40.000 euro biltzeko erronka ipini diote euren buruei. Horrek esan nahi du gutxienez 146.000 euro jaso nahi dituela Correscalesek, eta hori dena martxo erdialdera bitartean. Lerrook idazteko unea, 120.000 euro bilduta ditzute; gutxienezko helburuak aise beteta, eta funtsaren sorrera urrun ez. Horra, Correscalesen benetako helmuga. ■

Zuhaitz turismoa



Jakoba Errekondo

Posta elektronikoa:
mandio@zerain.eus

“Sustraietatik / buruko zozoraino / oro da zuhaitza”, idatzi zuen Josetxo Azkona poetak. Ez dut zuhaitzak burutik kentzerik. Urte pare bat badaramat etxerako sarrerako bidea hasten den txokoan jartzeko zuhaitz bat aukeratu ezinik. Toki deigarria da, eta bertan jartzen dena nabarmena izango da beti. Bertan bizi izan da, urte batzuek, gure aitak elorri zuri (*Crataegus monogyna*) baten gainean txertatutako mizpirondo bat (*Mespilus germanica*). Urte pare horixe da hil zela, eta harrez geroztik, bertan aldatzeko ordezeko berezi bat nahi eta ezin hauta. Zuhaitz askok dute bertan jartzeko adina merezi, bai alajainena. Neuk bakarra nahi, ordea, hazteko eta izateko nahikoa toki izan dezan.

Urtero hautatzen da Europako zuhaitza ere. Txekian aspaldi hasitako ohitura da, orain ia Europa osora hedatua. Ez da handiena edo zaharrena saritu nahi, inguruko kulturarekin duen lotura baizik. Otsailean eman daiteke botoa, honoko webgune honetan: www.treeoftheyear.org.



EMMANUEL BOITIER

Atlaseko zedro urdin negartia, Frantziako “lehiakidea” Europako urteko zuhaitzaren hautaketarako.

org. Bertan dituzu hautagaiak, zein baino zein dotoreago. Elkarte ugarik parte hartzen dute, eta bakoitzak berea lortzen du. Hauek “lehiakideak”: txekiarra eta alemana dira bi ezki hostozabal (*Tilia platyphyllos*), irlandar pago bat (*Fagus sylvatica*), frantziarra da Atlaseko zedro urdin negarti bat (*Cedrus atlantica* “Glauc Pendula”), eslovakiarra udareondo bat (*Pyrus communis*), ingeleseka maaltza da (*Pyrus pyramidalis*), nabarmen ugariena haritzak dira: sei kandudunak (*Quercus robur*) belgikarra, bulgariarra, poloniarra, irlandarra,

galestarra eta estoniarra; kandugabea (*Quercus petraea*) eskoziarra; eta ilaunduna (*Quercus pubescens*) hungariarra. Xelebreena espainiarra, bikote bat da: ametz (*Quercus pyrenaica*) baten gainean bizi den pinu gorria (*Pinus sylvestris*).

Hautatzeaz ari garenez, merezi du webgune horretan sartu-atera bat egitea. Zuhaitz bakoitzaren inguruko berri ematen du, baita bakoitzaren kokapen zehatza ere, GPS koordenatuekin. Oporretan nora jo hautatu ezinik bazabiltza, heldu zuhaitz turismoari. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Eup Jakoba. Baserritar kokor baten galdera: sagasti gazte batean ximaur-usuria mangeratik botatzea ona al da? Ni ezezkotan nago, zer diozu zuk?

Sasijakintsu (Ezkio-Itsaso)

Sagasti hori nirea balitz ez nioke usuririk edo mindarik botako. “Ximaur-usuria” deitzen diotzun hori aziendak azpirik ez duen ukuiluetan sortzen da. Kakak eta pixak biltegi batean jasotzen dira. Pixetan itota dagoenez, kakak ezin du behar bezala irakin eta ondu. Inaurkinik ez izateak ere ez du laguntzen...

Gero, lurrera zabaltzen denean, orduan hasiko da irakinaldia, bat-batean, eta ez nolanahikoa. Horrek eragin handia du, batez ere lur horretan biziko diren landareengan. Belar finenak, gozoenak, galtzen hasiko dira, eta zakarrek, gogorrenek aurrera egingo dute.

Askos ere hobe da behar bezala ondutako simaurra. Ukuiluan azpiekin bildutako kakak eta pixak ondu, eta ahal izanez gero, aparteko osagai organikoren batekin luartua litzateke onena.

Sagarrari kosk egiten diozunean igarriko diozu.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



Ehungarren hitzaldira iritsi dira, herriz herri, liburua eta egilea

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Iragan urteko apirilaren 16an Leitzan; hantxe hasi zen *Bizi Baratzea* aurkeztuz Jakoba Errekondok herriz herri ematen duen hitzaldien bira. Datorren martxoaren 17an, Seguran emango du ehungarren hitzaldia. Eta ibilia ez da oraindik bukatu.

Hitzaldiak, lurraldeak

- Gipuzkoan 57 hitzaldi egin dira.
- Bizkaian 20.
- Nafarroa Garaian 14.
- Araban 7.
- Lapurdin 1.
- Nafarroa Beherean 1.

Hasiera Gipuzkoan eta Nafarroan izan zuen, eta urte bukaeratik hona hasi dira gehiago antolatzen Bizkaian. Baina Jakobiten erromesaldia ez da bukatu, eta udara bitartean Bizkaian beste 40 emateko prestatu du bere burua.

3.182 baratzezalerengana, txikitik eragiten

Era guztietako herri eta auzoetara iritsi da *Bizi Baratzea*: auzune kozkorak, hiriak, herri txiki txikiak... Ondorio hau atarra du: "Zenbat eta herri txikiagoa, lurrari lotuagoa eta jende gehiago etortzen da hitzaldira, proportzioan". 100 biztanleko herrian %25 etorri izan da, eta 350.000 biztanle inguru dituen Bilbon eginiko hiru hitzalditara denera 406 pertsona

(biztanleen %0,1). Guztira 3.182 baratzezale elkartu dira hitzaldiotan, gazteak eta gazte izandakoak, baratzean beti hasitekotan direnak eta bizitza osoa uzteko-tan daramatenak... "Jendearekin izugarri ikasi dut, esaterako, hiztegia, toki bakoitzean gauzak nola esaten diren..." Hori da Errekondok gehien estimatzen duena, hitzaldietan jendeak bizi bizi parte-hartzen duela, ez bakarrik galderak eginaz, baita nork bere erantzunak emanaz ere.

Era guztietako plazak

Gure herrietako azpiegituren berri ere galde dakioke Errekondori, honezkeror. Hitzaldia eman baitu era guztietako aretoetan: elkarte gastronomiko, ostatu, jubilatutako, udaletxe, udaletxepeko aterpe, eliza, ermita, ludoteka, museo, liburu-denda, eskola, euskara elkarte, Ekoetxe, baratze, asteroko azoka, urtean behingo azoka berezi, erakustazoka erraldoi, Astran, Txantxerreaka Gaztetxean... Hainbat ekimen bereziren egitarauaren zati izan da hitzaldia (Fracking Ez Akanpada, Lurrama, ERTZ 16 jaialdia...) eta hitzaldi oso bereziak ere joan dira: ibilaldi musikatuak baratzeetan, hizkuntzaren bueltakoak, komikilariak marrazkiz jaulkitako galderei erantzuna, barazki pintxo jateak, Durangoko (liburu) azokan letxugak baratzea... eta etorriko direnak! ■

AURKEZPEN HITZALDIK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Otsailak 25

Zaldibar

18:30ean, lekua zehazteke.
Durangaldeko Berbalagunek antolatuta.

Otsailak 27

Erratzu

Etxelebertzeko txokoa, 11:00etan.
Hazien Egunaren baitan.

Martxoak 2

Zornotza

Ziztada Gunean, ordua zehazteke.
Guneak berak Arkupe kontsumo taldearekin eta Nañon euskara taldearekin batera antolatuta.

Martxoak 3

Leintz-Gatzaga

Gatz Museoa, 18:30ean.

Martxoak 17

Segura

Lekua zehaztu gabe, 19:00etan.

Martxoak 19

Bedarona (Ea)

Jakoba Errekondok bertatik egingo du Euskadi Irratiko *Landaberri* irratsaioa.

Ondoren hitzaldia.

Lekua zehazteke, 10:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu

sustapena@argia.com

☎ 943 371 545

ERRADIOAKTIBITATEZ "SENDA" ZAITEZ



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

New Jersey (AEB), 1918. Radio Bailey Inc. laborategiek Radithor izeneko produktua merkaturatu zuten, "hildako bizidunentzat osabidea" lelo ezin egokia goarekin. Radithorrek ur destilatua eta radio-226 eta 228 elementuak zituen, biak oso erradioaktiboak. Produktuak bertute ikusgarriak zituen: dena sendatu eta betiko poza ematen omen zuen. Erosleak konbentzitzeko, erradioaktibitatea "ziurtatuta" zegoela nabarmen adierazi zuten flaskoan bertan.

1930ean Tho-Radia aurpegiko krema saltzen hasi ziren Frantzian; 100 gramo, 0,5 gramo torio kloruro eta 0,25 gramo radio bromuro zituen. Alemanian, aldiz, Doramad azaldu zen merkaturatua, erradioaktibitateari esker hortz-haginak eta oiak indartzen zituen hortzeta-ko pasta. Erradioaktibitate dosiak txikiak ziren eta, ondorioz, produktua ez zen berez hilgarria; erabiltzaileei hortzen bat geratu ote zitzaizen ez dakigu.

Alemanian bertan, 1931n, Burk & Braun enpresak Radium Shokolade merkaturatu zuen, adin guztietako gozaleentzako txokolate erradioaktiboa.

Eta produktu sorta osatzeko, Vita Radium supositorioak atera zituen Coloradoko Home Products Companyk. Primerakoa omen zen sexu-grina berreskuratzeko, gorputzeko sistema guztiei mesede egiten zien eta, hori




Ezkerrean, Radithor sendagai erradioaktiboaren flaskoa. Alboan, Tho-Radia radioa zeukan kremaren iragarkia, sendagarri izateaz gain, edergarri ere ba omen zena.

THEODOR W. GRAY

gutxi balitz, hemorroideen aurka oso eraginkorra zen. Parean topatzen zuen guztia garbi zezakeen, literalki, kontsumitzailea barne.

Produktu erradioaktiboak merkatutik kentzeko prozesua ez zen berehalakoa izan; Radiumscope haurrentzako jokia 1942. urtea arte egon zen saltokietan. Baina 1932an produktuon gainbehera hasi zen, Radithorren kontsumitzaile sutsu eta ezagunena hil zenean.

Eben Byers (1880–1932) kirolari eta industrialari ezaguna 1927an hasi zen Radithor hartzen, osasunari mesede nabarmena egiten ziola sinetsita.



1930ean "sendagaia" hartzeari utzi zionerako, 1.400 botilatik gora zeuzkan edanak. Gorputza abzesuz josita zeukan, garezurra zulatzen ari zitzaion eta masailazurraren arrastorik ez zitzaion geratzen. 1932ko martxoaren 31n, komunikabideek "erradiazioak pozoituta" hil zela jaso arren, radioak eragindako askotariko minbiziek eragin zuten Byersen heriotza.

Material erradioaktiboaren arriskuez jabetzen eta neurriak hartzen hasteko balio izan zuen horrek. Byers, badaezpada, berunez estalitako hilkutxa batean ehortzi zuten. ■

Bisustua, hau da, martxoko kalenden aurreko bigarren seigarren eguna

Duela 2.000 urte inguru Julio Zesarrek juliotar egutegia ezarri zuenetik, lau urtez behin otsailak 29 egun ditu ohiko 28en orde.

Garai hartan, hileko lehen egunari kalendak esaten zioten, zazpigarrena nona zen, eta hamabosgarrena, aldiz, idusa. Otsailaren 28a esan ordez, antzinako erromatarrek *primum dies ante*

calendas martias esaten zioten data horri, martxoko kalenden aurreko lehen eguna, alegia. Hala, otsailaren 27a *secundum dies ante calendas martias* zen, martxoko kalenden aurreko bigarren eguna, hilaren 26a, berriz, hirugarren eguna, eta horrela gainerakoak.

Berrikuntza gauzatzeko, hau da, bisurtea lehenengoz ezartzeko, gaurko

otsailaren 23 eta 24aren artean, kalenden aurreko bosgarren eta seigarren egunen artean beste egun bat sartu zuten. Eguna osagarriari *bis sextus dies ante calendas martias* deitu zioten, martxoko kalenden aurreko bigarren seigarren eguna, eta egun hori zeukan urteari *bis-sextus* edo bisustua esango zitzaion handik aurrera. ■



1982an Karmengo Andre Maria kaleko erredakzioan: ezkerretik eskuinera Eskarne Mujika, Pablo Sastre (bizkarrez), Cristina Berra (zutik), Iñaki Uria eta Pello Zubiria.

(1919-2019) EHUNDU ARGIA

ARGIAk badu Egiatik zerbait



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zeruko Argia izatetik ARGIA izatera pasa zen erredakzioa, Kaputxinoek Oken-do kalean (Donostia) zuten lokalean egon zen azken tartetxoan. Baina *Zeruko Argia*, 36ko gerra, diktadura, “trantsizioa”... beste baterako kontakizunen kutxan gordeko ditugu.

Zein lekutan egon da, ordea, ARGIAko erredakzioa, artxiboa, zein izan dira inprentaren pausak, zein ibilbide izan du aldizkariak kokalekuei begira azken 35 urte hauetan?

“Kaputxinoetan” sortu zen ARGIA 1980an, langileek enpresa beren gain hartu zutenean. Egia auzora egin zuen salto generazio berriak, Zeruko-rik gabeak, 1981ean; Karmengo Andre Maria kalera, gaur egun ere ezaguna den “Kata” ostatuaren pareko kalekalea. Bat baino gehiago izango da bertan zitzen bat egindakoa. Argazkiak errebelatzeko txoko iluna, erredakzioa, artxiboa eta abar prestatu zituzten, eta oso oker ez banago leihorik gabeko zulo horretan pasatzen zituzten gau eta egunak. Pareko tabernakoek ere izango dute makina bat kontu kontatzeko, baina hori ere beste baterako

kutxara. Egiako ekosistemaren parte egin ziren.

1985erako lekua txikitxo geratzen hasia zen eta lan komertzial batzuk ere egin zituzten ordurako, eta Egian bertan baina Ametzagaina kalera pasa ziren. Garai hartarako bazuten harremanik inprentaren batekin. Prozesua konplikatuagoa zen gaur egungo ereduarekin alderatuta eta inpresioaren fase guztiak ez zituen enpresa berak egiten; hortaz, helburua zen prozesuaren ahalik eta zatiirik handiena autogestionatzea.

Hortik hurrengo saltoa 1988an Egia inguruko azken txokora, Mundaiz kalea; Tabakalera eta Gladys-Enea ondora. Inprentarako lehen makinak erosi zituen ARGIAk. Bi urte pasa zituzten lokal hartan, eta ordurako buruan zerabilten euskarazko egunkariaren sorrera, inprentak ere geroz eta leku gehiago eskatzen zuen, eta handik eman zen gaur egungo Lasarte-Oriako kokalekura aldaketa.

Egiak ARGIAren bizitzan zati garrantzitsu bat bete du, eta ez da kasualitatea lametzak, Antzak, Adurrek eta ARGIAk osatzen duten taldearen izena Ametzagaina izatea. ■

“Euskal Herriko astekari bakarra da. Pentsa zer ardura eta zer aukera!”

Josu Chueca,
Historialaria, ARGIAko
kolaboratzailea

Korrika prekarioaren jarraipena elkarlanean Ahotsa, Arainfo, Directa eta ARGIAk

Prekaritatearen aurkako Correscales lasterketak Bilbo eta Bartzelona batu ditu otsailaren 18tik 22ra bitartean. Movistar telefono konpainiako langileek abiatutako borrokari Euskal Herriko, Aragoiko eta Kataluniako dozenaka herri eragile batu zaizkio. Elkarlanean egin diogu jarraipena ARGIAk (hasieran, Bizkaia eta Gipuzkoako lurretatik pasa denean), *Ahotsak* (Nafarroara jo duenean), *Arainfo* (ondoren, Aragoiko zatiaz) eta *La Directa* (amaiera Kataluniatik kontatuz). Argia. eus-en ditugu hedabide guztion argazkiak, bideoak eta kronikak, *Creative Commons* lizentzia libreari esker.



Durangon banatutako uhaza landareak hasiak dira entsalada bihurtzen

Gogoratzen Durangoko Azokan ARGIA eta *Bizi-Baratzearen* postutik nola aterazinen uhazatxoak eskutan, loresorta babiliztan paperean bilduta, hostro berdeek jartzen zituzten “landatu nazazu zure etxean” aurpegitxoaren ondorioz poltsan sartzeak pena ematen zizula eta eskuak beti zut eramatera behartuta? Bada energia inbertsio horiek hasi dira emaitzak ematen, irakurle batek eskerronez bidali digun hau kasurako. On egin kazetaritza independenteak eta lurraren kulturak!

PEIO AGIRRE: “KRITIKARIA EZIN DA INOLAZ ERE XALOA IZAN”

Idazle freelancea, komisarioa eta kultur kritikaria da Peio Agirre (Elorrio, 1972). Hainbat hedabidetako kolaboratzailea, *Crítica y metacomentario* bloga sortu zuen oraintsu hamar urte. 2014an, *La línea de la producción de la crítica* [Kritikaren ekoizpen-lerroa] saiakera argitaratu zuen Consonni arte-ekoiztetxearen eskutik. Berarekin hitz egin dugu, kritikarien kinka zailaz, kritika estrategikoaz eta abarrez.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nola jarri zen martxan liburu hau?

Kritika idazten aritu naiz azken 15 urte pasan, tokiko, nazio-mailako eta nazioarteko hedabideetan, eta apurka-apurka idazketarekiko konpromisoa eta beharra sortzen joan zait. 2004 inguruan, hitzaldi-sorta baten harira, konurtatu nintzen oso gutxi hausnartzen

zela lanbidearen eta hori sostengatzen duten baldintza materialen inguruan. Beraz, artxibo bat sortu nuen ordenagailuan, kritikari buruzko gogoetekin, batez ere nire irakurketei tiraka, testu potentzial bat eratu arte. Testu hori ez zen sekula idazten, ordea, idazle *freelance* bat bainaiz, eta egoera horretan



langintza zaila da liburu bat sortzea. Azkenean, Consonnikoek proposamena egin zidaten, eta liburua osatu nuen.

Sarreran diozunez, tresna-kutxa baten gisara funtziona dezan nahi duzu.

Azken urteotan, batez ere bloga zabaldu nuenetik, askotariko edukiei buruz idatzi



dut, baina kasu honetan nire asmoa zen tratatu metodologiko moduko bat egitea, niretzat ez ezik beste hainbatentzat baliagarri suerta daitekeena, bereziki kritikari eta idazketari buruz hausnartu nahi duen jendearentzat. Alde horretatik, eraikitze dagoen eraikuntza teoriako baten lehen harria baino ez da.

Izenburuak arreta ematen du.

Ekoizpen-lerroa eta muntaketa-katea langile-mugimenduarekin lotzen dira, baina artista askori inspirazio-iturri gisa balio izan die, Sergei Eisensteini, Jean-Luc Godardi... Idazketaren eta muntaketaren arteko analogiak egin ditut, aipuen bidez-eta. Niretzat oso

garrantzitsua da ikustea nola dagoen eginda. gauza bat, edozein gauza, baita liburu bat ere.

Adibidez, Slavoj Žižekek kontatzen du nola egiten dion iskin idazteko uneari. Barrenak husten ditu ordenagailuan, eta bere buruari esaten dio ez dela idazten ari, baizik eta lehengaiak pilatzen,

gordin. Nahikoa testu daukanean, editatzeari ekiten dio, eta hori da parte garrantzitsuena. Niretzat, aldiz, *collagea* da teknika literario emankor bat. Hala idazten dut, zenbait gauza elkarri itsatsiz, eta lotuneak ezabatzen ditut gero. Liburu hau ere post-produkzioan idatzia dago, hein handi batean.

Kritikaren egoerari begira, abiapuntua nahiko ezkorra da: “Kritikari garaikidea, iritzi publikoaren ordezkaria bainoago, publizista da, edo merkatuaren mandatarari hutsa”.

Bai, diagnostiko kezkarri horretatik abiatu nintzen. Artearen munduan denbora luzea daramagu kritikaren krisiaz hizketan, baina gehiegi sakondu gabe. Nik baneukan ideia nahiko zehatz bat, hain zuzen ere, kritika eta publizitatea/publikotasuna lotzen dituen gogoeta-ildoak: nola ordezkatzeko dituen kritikak merkatu-harremanak eta abar. Gai benetan mamitsua da, eta xehe-xehe egin nahi nuen, baina idazten joan ahala, konturatu nintzen ezin nuela liburu guztia hor kokatu. Idazketaren gaia ere ekarri nahi nuen, subjektuaren eraikuntzarekin lotuta, alegia, zer-nolako onura dakartzan idazketak identitatea eraikitzeko.

Horixe esan behar nizun: “amesgaizto” abiapuntua izanagatik, gaitzari aurre egiteko antidoto ugari proposatzen dituzu. Tartean kritika estrategikoa.

Jakina, idazteari uko egiteak ez du ezer konpontzen. Liburuaren hasieran bada Walter Benjaminen aipu bat: “Kritikaria estrategia bat da, borroka literarioan”. Kritika estrategikoa esan nahi du kritikariak merkatu-botereen jakitun izan behar duela eta ohartu behar dela zer-nolako marko ekonomikoan txertatzen den bere kritikak argitaratzen dituen argitalpena (adibidez, erakusketen publizitatea egiten duen arte-aldizkari bat). Kritikariak jakin behar du kritika oro publizitate-modu bat dela, alegia, kode bitarraren logikan, argitaratutako kritika oro 1 bat dela, negatiboa izanda ere.

Baina aldi berean, kritikaria gai da eta boterea du, instrumentalizazioaz konturatuta, zerbait aldatzeko. Jakina, lehenengo erabakia da idaztea ala ez idaztea. Bigarrena? Idatziko duzula ebatzita, zeri buruz eta nola idatziko duzun.



“Berritasunari zerbitzu egitea merkatuari zerbitzu egitea baita. Horregatik aldarrikatzen dut gertuko iragana”

Horren haritik, erregularitasuna eta irregularitasuna hartzen dituzu hizpide.

Bai, nik hainbat egunkaritan idatzi dut eta aske izan naiz beti gaiak-eta auke-ratzeko. Egunkarien ekoizpen-egituren barruan dauden kritikari erregularrek arazo larriagoa dute, diru-sarreraren mende baitaude, eta hilero edo astero helarazi behar baitute ale bat. Nik neuk uko egin diot dinamika horri, izan ere, eskariaren jopu bilakatzen zara, eta aktualitatearen logikan sartzen. Uztarri bat da hori, azken batean, berritasunari zerbitzu egitea merkatuari zerbitzu egitea baita. Horregatik aldarrikatzen dut gertuko iragana.

Horrela esanda, ez-dialektikoki, oker uler daiteke ideia. Liburu hau, hain zuzen ere, prekarizazioaren aurka dago idatzia. Baina, era berean, kritikaren ekoizpen-baldintzez diharduenez, sutsuki defendatzen da amateurtasunmoa, partaio eta nobre buruarentzat idaztea.

Adibide baterako: gustuko dut zineari buruz idaztea, baina egunkarietan idazten nuenean arte-zutabeen nengoen, eta bazeukaten zine-zutabe bat ere, beraz nik "neure" gaiari heldu behar nion. Gainera, zine-kritikan, epaiak zama handia du, argiki esan ezean iradoki behintzat iradoki behar duzu ea filma ona den ala ez, eta

“Blogak ez du
hedabideen presio
komertziala pairatzen,
eta ez dio men egin behar
akademiak ezarritako
hierarkizazio-botere
zentsuratzailari”

“Kultur adierazpideak
interesatzen zaizkit
gaur egungo egoeraren
eta mundu-sistemaren
sorburuak haztatzeko
balio duten heinean”

Nik dialektika ulertzen dut zalan-
tzarako espazio gisa, espazio bat non
duda egin ez ezik duda hori praktikan
jar baitezakezu, idazketaren bidez. Es-
pazio bat da non iritzi kontrajarriak
izan baititzakezu gauza bakarraren
inguruan, pentsatzerakoan hori ger-
tatzen baitzaigu sarri: gauza bat pen-
tsatzen dugu eta baita aurkakoa ere,
biak ontzat joz. Zaila suertatzen zaigu,
ordea, hitzen bidez adieraztea. Zentzu
horretan, idazketa iruditzen zait bi-
dea, ahozkoak bestelako zailtasunak
baitakartza. Idazketak balio dit mun-
duaren konplexutasuna praktikan jar-
tzeko. ■

47


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Baleazaleak arriskuan



Xabier Etxaniz Erle



Kearen fiordoa IÑAKI PETXARROMAN

Elkar, 2015
(235 orrialde)
Gazteentzat

Euskal arrantzaleek hainbat abentura izan dituzte historian zehar, bai eta gure zaldun eta marinelek; hala ere, oso gutxi dira horien inguruko literatura lanak. Aurreko batean orri hauetan bertan komentatu genuen *Justin Hirriart* komiki lana dugu lan bakanetako bat. Eta azken hori bezala, *Kearen fiordoa* abenturazko lan interesgarri eta entretenigarria ere badugu.

1615ean Islandiako mendebaldeko fiordoetan jazotako gertakari historiko batzuetan oinarrituta, Iñaki Petxarromanek nobela historiko guztiz interesgarria idatzi du. Euskal marinelak, ohiko arrantzaldia egin ondoren, harrapatuta geratu ziren eta hala zeudela islandiarren eraso bortitza jasan. Euskaldunen artean hildako ugari izan ziren (sarraskitzat hartu izan da hainbat lane-tan hogeita hamabi lagun haien hilketak) eta hango istorioen/historiaren narrazioa da nobelan aurkezten zaiguna, kasurik gehiengotan benetako pertsonaien izenak erabiliz.

Martin Villafranka dugu horietako bat, kapitain gaztea, esperientzia gabekoa eta aurreko ibilaldietan Islandiako neska batez maitemindua. Petxarromanek, nobela historikoetan gertatu ohi den bezala, errealitatea eta fikzioa uztartzen dizkigu, dosi neurtuetan irakurketa erakargarria lortuz. Eta benetan lortzen du irakurleak abenturetan harrapatzea. Euskaldunen larritasuna, beldurra, kemena senti daitezke narrazioan. Bai eta Martinen eta Huraren arteko maitasuna edo Jon Gudmundsson artzain protestantearen eta Pedro euskaldunaren arteko adiskidetasuna ere.

Euskal baleazaleak Islandiako fiordoetan harrapatuta geratu dira, itsasontziak gainera urperatuta ekaitz baten ondoren, eta egoe-

ra horretan, Ari Magnusson magistratuak bertakoak bidaltzen ditu euskaldunen kontra, bortxaketak, lapurretak eta beste hainbat gaiztakeria leporatuta. Intriga eta tentsioa ageri zaizkigu, jakin ere badakielako irakurleak ez dela amaiera zorionsua duen maitasunezko nobela horietako bat; eta hori argi geratzen da Martinen heriotza jazotzean. Lehenago ere beste eraso batean egoeraren gordintasuna nabari da, bizitzaren balio eskasa lurralde haietan. "Ikararen mende iritsi da Ramiro Martinengana, egunak eta gauak mendi izoztuetan barrena ibili ondoren, ia ezer jan gabe (...). Ia hitzik egin gabe ulertu du Martinek dena, herioa islatzen baita Garziaren begietan".

Azken batean *Kearen fiordoa* gertakari historikoetan oinarritutako nobela bizi eta irakurlea harrapatzen duten horietakoa dugu. Abentura, maitasuna, adiskidetasuna, nahikeria eta beste hainbat sentimendu, gertakari, pasadizo biltzen dituen nobela ederra. Gure historia hobeto ezagutzeko balioko du Iñaki Petxarromanen lehen lan honek, bai eta une atsegina igarotzeko, zalantzarik gabe. ■

Iñaki Petxarroman eta Edorta Jimenez liburua hizpide, Durangoko Azokan.



» TELEGRAMA

Astelehenean hasi zen Bilbon **Zinegoak** festibala, urtero nazioarteko gaylesbotrans film onenak Euskal Herrira ekartzen dituen: hilaren 29ra arte egitarau oparoa *STOP*. Eta Bilbotik atera gabe, beste zita inportante bat 26an Hika Ateneoan: **Munduko ahozko inprobisazioaren III. Topaketa**; Onintza Enbeita bertsolaria eta Yeray Rodríguez repentista kanariarra izango dira *STOP* Baigorriko **Etxauzia** gazteluan emanaldi berezia prestatu dute hilaren 28rako: **Anari** eta **Bernardo Atxaga** ariko dira 17:00etatik aurrera *STOP*.

» DISKOA

Soinu horma bortitza



Bi

TOOTH

Autoekoizpena, 2015



Joxi Ubeda

Rock eta post-hardcore doinuak jotzen ditu Tooth Gernika-Lumoko taldeak, indar, bizitasun eta kemen handiz. Haien kantuak entzuterakoan Dut, Lisabö, Izaera, R, Helmet, Mogway, Melvins, Unsane eta Today is the Day bezalako taldeak atsegin dituztela suma daiteke, baina beren estiloa sortzen jakin dute. Aipagarria da taldearen jarrera oldarkorra eta intentsitatea, jotzen ari direnean sutan daudela ematen baitu, eta eraikitzen duten soinu horma bortitzak kiskali egiten gaitu.

Aieneka eta oihuka, zulo sakon eta ilun bati batera begira egon ordez irtenbide bat bilatzea aldarrikatzen dute, makurtuta bizi baino altxatzea eta zutik jarraitzea, eta inkomunikazioa, isolamendua eta bakardadea gainditu eta gertutasuna eta elkartasuna izatea.

Edorta (gitarra eta ahotsa), Mirri (baxua eta ahotsa) eta Arza (bateria) dira taldeko kideak, eta hiruen artean doinu itzela gauzatu dute, trinkoa eta potoloa, erritmo sinkopatu eta astun batzuen gainean. Grabazioa Muxik(on) estudioetan egin dute, Iñigo Etxebarrietaren gidaritzapean, eta bere lana ere azpimarragarria da, oso ekoizpen ona egin baitu.

Taldeak 2009an sortu zen. Urte horretan maketa bat kaleratu zuten, eta lehen diskoa 2012an. Bere ibilbidea egiten ari da, diskoz disko eta emanaldiz emanaldi, urrats sendoak ematen aurrera begira, zerbait desberdina egiten, xehe-tasun eta ukitu berriak, eta bere doinua fintzen eta biribiltzen.

Haien jendaurreko emanaldiak ikusteko eta bizitzeko modukoak dira. Hurrengoak izango dira martxoaren 11n Barakaldoko El Tubo aretoan, martxoaren 18an Oñatiko gaztetxean eta martxoaren 25ean Bilboko Kafe Antzokian, eta aurrerago saio gehiago ere egingo dituzte, han eta hemen, haien jendaurrean jotzeko gogoak eta grinak eskatzen baitie. ■



Nevski perspektiba

BENITO LERTXUNDIREN KONTZERTUA

Hirurogeita hamalau urte betetzeko hogeiei egunen faltan zela aritu zen Benito Lertxundi zuzenean Bilboko Kafe Antzokiaren hogeigarren urteurrenean, 2015eko abenduaren 15ean.



Fermin Etxegoien
@FEtxegoien

Taula gainera kontatu zuen, hogeita hamalau urte lehenago, *Bizkaia Maite* kantarekin izan zuten arazoak, 1981eko *Zuberoa / Askatasunaren Semeei* disko-rako abestiak antolatzean, bat kanpoan gelditzen zelako, orduko biniloak behar izan zuten iraupena gaindituta.

Berehala eta aho batez erabaki zuten, Lertxundiren hirugarren disko luze hartan lanean ari zirenen artean, *Bizkaia Maite* behar zuela kanporatua.

Gero, Madrildik etorri zen notizia, diskoen fabrika bazutela konponketaren bat binilo hartarako eta bazuela *Bizkaia Maite* tokia beraz, nahi izanez gero.

Egun, Lertxundik uste du, orduan bitan pentsatu gabe eta besteekin ados baztertzea erabaki bazuen ere, inoiz sortu duen kanturik ederrena dela *Bizkaia Maite*.

Segidan, aldamenen nuen kantuen letren egile Joxanjel Irigarairi eskaini

zion Lertxundik 2016ko abenduaren 15eko *Bizkaia Maite*ren interpretazioa. Hogeiei urte lehenago, Joxanjel aurkeztu aritu zen Bilboko Kafe Antzokiaren inaugurazio ekitaldian.

Handik urtebetera-edo, galdetu nion: “Orduan, nire aitak Zuberoari buruz –demagun– pentsatzen duena... heuk asmatua duk?”.

Lertxundiren musika-geografia imaginatuak, ezen ez imajinarioak. Amodio triangelu bizarro bat, erpin nagusiak Orreagan, Stonehengen... eta hirugarrena? Dudan nago! Cohenen Viena, Pessoaen Chiado? Ailegatzen ari zait aire mediterraniar deliziosu bat ere, greziarra edo... eta baita *niurleantsianoa* izan nahi duen eztarriko hots bat, nabarmen guturalagoa.

Gauza da Lertxundi emanaldiaren lehen berrogei minutuak kanturik ezagunenak jo gabe osatzeko. Ondo-

ren ere, gutxi. Kantu horiek idatzi izanaren truke, arima deabruari saltzea justifikaturik ikusiko luke batek baino gehiagok, baina Lertxundik bete betean eusten dio anbizio artistikoari, eta horretarako –kantu ez hain ezagunak ongi pasarazteko– lagun ditu sonoritate zaindua eta primerako taldekideak (Untzu, Ramirez, Zeberio, Zugasti...), ezagun denez perfekzionista handia da-eta, emanaldiaren aurretik soinu gardentasun bila ordu luzeak ez alferrik, horixe baietz, ematen di-tuena.

Aurtengo Errege Egunean, hirurogeita hamalau bete ditu Benitok.

Joxanjel udazkenekoa da.

Zenbat gara?

Ohar ez-nolanahikoa zekarren idatzirik hogeigarren urteurrenaren sarrerak: “Kontzertua zutik bakarrik ikusi ahal izango da”. ■



JULEN URIBE LEANIZBARRUTIA

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Europako hiriburuak

HOLANDAKO LORE TIPIKOAK ①		PARISKO HERRITAR LETRA IZENA		SUARI DARIONA SOLDATA		INTEKTU MOTA UR AZPIKO DETEKTA- GAILU		ARRAUZKARA		...-ERDI, ERABAT SALMENTA MOTA		ANTZINAKO EGIPTOKO ERREGEA NAZIOKO	
								② TXADAR TALDEKO HIZ- KUNTZA					
GRINA PARE BAT						OIHANEAN HAZTEN DENA ETSAI, KON- TRAKO							
		IGO NAFARROAKO UDALERRIA						GIPUZKOAKO HERRIA TOPEKADAK					
JOSI ONOMATO- PEIA										OKERKERIA LARRUA- ZALEKO SENTSAZIOA			
				ESANARAZI ALKOHOLIK EDATEN EZ DUENA							MUSIKA ESTILOA ③		
TAMAINAK	UNEKO EGUNEAN EGONALDI					FEREKA, TXERA PISU GU- TXIKOA							
								BILA OPIL					OLIBAREN ZUKU
LETRA IZENA HERRI GERMANIAR BATEKO KIDEA			EROTU LANDARE MOTA							XAKE JOKOAREN PUNTUAK ANFIBIO MOTA			
					IKARAZ IDI, HITZ- ELKARKETAN							LITROA TALIOAREN SINBOLOA	
④ ALABA EDO SEME PONTEKO							ITSAS ARRAIN TXIKI KILOA						
									⑤				

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Danubio ibaiak zeharkatzen du hiria, bi aldetan bereiziz; batetik bestera igarotzeko Kateen zubia erabil daiteke. Turismo gune garrantzitsua da, bertan dago Europako sinagogarik handiena, baita bainuetxerik handiena ere.



② Aar ibaiak zeharkatzen duen hiri hau Alpeetatik hogeikilometrora dago. Erdi Aroko hiri zaharra UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatutako gunea da. Alemana da hiriko hizkuntza ofiziala, baina bertako dialektoa da gehien mintzatzen dena.

③ Munduan populaturik dagoen hiririk zaharrenetarikoa da hau. Izena jainkosa baten omenez du. Hiria Akropoliaren harkaitz-muinoen azpian zabaltzen da.

④ Hiri hau herrialdearen iparraldean dago kokatua, Finlandiako Golkoaren hego-ekialdean eta Helsinkitik 80 kilometrora. Eurostaten



arabera, herritartasun europarra ez duten biztanle gehien duen hiria da; zehazki, biztanleen %27,8k ez du.

⑤ Eskandinaviako hiri honetako udaletxea, adreilu gorritzko eraikin deigarria, hiriko eraikinik bereizgarrienetakoa da. Han egiten da urtero Bakearen Nobel saria emateko ekitaldia.

Soluzioak

B	E	S	O	E	T	A	K	O	L	A	P	A	N	O	S	L	O
T	A	L	L	I	N	I	K	A	R	A	N	E	L	O			
G	O	D	O	A													
N	E	U	R	R	I	A	K										
Z	A	R	T														
P	A	S	A	R	A	T	U	A	L	K	I	Z	A				
B	I	L	E	R	A												
B	U	D	A	P	E	S	T	O									

Joana Masó. Gorputzari bueltaka



Literaturan doktore, Université de Paris VIII-Saint-Denisen. Frantses ikasketen irakasle Universitat de Barcelonan. Ikerlari Centre Dona i Literatura UNESCO Katedran. Itzuli eta editatu ditu Helene Cixous, Jacques Derrida, Catherine Malabou, Jean-Luc Marion eta Jean-Luc Nancy. Eta gorputzari eman dio pare bat buelta.

“Gorputzaren aldeko borroka soberania lortzeko borroka da”



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: JUANDE JARILLO

Isiltasuna

“Azken bi mendeetako feminismoak lagundu du, ez bakarrik ordura arte beste batzuek zituzten eskubide berak ez zituzten gorputzak babesten eta defendatzen; lan egin du, halaber, tradizioaren baitan zegoen gorputzaren absentsia politikoki zabaltzen. Auto-rearen, artistaren, filosofoaren gorputzaren inguruan historikoki egon den isiltasunak forma eman dio sorkuntza-aren eta pentsamenduaren espazioa ulertzeko modu jakin bati. Gaur egunean erabat desmuntatu da modu hori, eta buelta eman zaio eremu askotan bizitza, lana eta politika harilkatzen duten praktiken bitartez”.

Zer da gorputza?

Michel de Certeauk esan zuen: gorputza bere horretan aurkitzen zaila da. Ez dakigu zehatz non hasten den, non bukatzen. Ahotsa, adibidez, gorputzaren parte da? Eta hitz egiteko manera? Adierazteko era? Gorputza mugitzeko modua ere gorputzaren parte da?

Filosofiak zer erantzun dezake?

Agian, filosofiak ez du pentsatu behar zer den gorputza, zein diren haren mugak. Garrantzitsuagoa da behar bada gorputzak munduan uzten dituen arrastoak zein diren galdetzea. Eta hala uler daiteke genero ikasketek eta mugimendu feministek filosofoaren historia-ri egindako gaitzespen handienetakoa: gorputzaren arrastoen absentsia erabatekoa dela testuetan.

Ez dago gorputzik, hortaz, testuetan.

Filosofia kanonikoaren historia idatzia izan da hizkuntza ustez neutro batean, zeinean idazten zuen subjektuak ez zuen sexualitatearen markarik uzten. Jacques Derrida hasi zen gorputz sexu-

dunaren markak inskribatzen, filosofia izaera nabarmena zuten testuetan; Platon, Heidegger edo Lacanen psikoanalisiak hitz egin zuen haietan. Eta ez bakarrik gorputz sexudun propioaren markak, baizik eta halaber gorputz kolonizatu, gorputz juduarenak. Derridak zioen irakurri zituen filosofoez gehien interesatzen zitzaiona beren bizitza sexuala ezagutzea zela; bizitza sexuala modu zabalean ulertuta: sexualitatea, gorputza, eta abar. Hain zuzen, beren testuetan sekula azaleratu ez zena.

Baina, halako batean, hasi ziren gorputzak azaleratzen.

XX. mendeko bigarren erditik aurrera, gorputzaren gaineko hausnarketa izan da feminismoaren eta filosofia garaikidearen ekarpenik handienetakoa. Adibidez, agertu izan da gure gorputzean gurea ez den hori guztia. Gurea ez, bazik eta garai bakoitzeko moralaren edota ideologiaren emaitza dena, garai bakoitzak gorputzari ezarritako biolentzia guztia. Bai eta gorputzak emantzipaziorako erabilitako forma diferenteak ere.



“Gaur inoiz baino gehiago dakigu gorputz intimoa dela sistemari beldur gutxien eragiten dion gorputza”.

Gorputzak ez baitira bat eta bakarra.

Gaur inoiz baino gehiago dakigu gorputz intimoa dela sistemari beldur gutxien eragiten dion gorputza. Sistema horrek alde batetik sustatzen ditu gorputzaren erakusketarako, espektakulurako modu asko, mediatikoki, pornografikoki; eta beste alde batetik kriminalizatzen ditu kalera ateratzen diren gorputz horiek, espazio publikoa hartzen dutenak aldarrikatzeko politikoki gorputzarekin lotutako gauza asko. Batzuek nahiko lukete gauza horiek espazio intimo edo pribatuan geratzea itxita.

Gorputz intimoaren aurrean, zer?

Gorputz publikoa edo politikoa. Estatu bakoitzak arautzen ditu, modu erabat erlatiboan, zer gorputzek duten, adibidez, elkarrekin ezkontzeko eskubidea, guraso izateko eskubidea, sexua, gorputza bera aldatzeko eskubidea. Desmuntatu beharra zegoen, batez ere pasa den mendeko 60ko hamarkadatik aurrera, gorputza norberaren gauza pribatu bat zelako ideia.

Egin da, noski.

Salaketa hori XX. mendeko idazketa modernoetan irakur daiteke: Antonin Artauden gorputz sozial gaixo eta psikiatrizatua, Samuel Becketten gorputz behartsu eta zatikatuak, Marguerite Durasen gorputz desiradunak, Jean Geneten erotismo homosexuala edo Helene Cixousen idazketa femenino eta gorputz kolonizatua. Evelyn Groszmanek hitz egin izan du bestelako gorputzak asmatzearen, bestelako eredu sozial eta politikoak bilatzearen beharraz. Eta ez bakarrik esplorazio intimoaren bitartez, gorputz sozialki, sexualki, politikoki ikusezinen esplorazioaren bitartez ere bai.

Gorputzaren aldaketa aipatu duzu. Baina noraino?

Gure garaia izan da nahi dugun gorputza izan dezakegula sinetsaraztetik gertuen egon dena. Norbere gorputzaren auto-transformazioarekin: dietak, kirurgia, hormonak eta, batez ere, moda, zentzurik zabalenean. Etengabe proposatzen zaizkigu izan nahi ditugun gorputzak autodiseinatzeko moduak.

Nahi dugun gorputza, posible ote?

Gorputz aldaketaren inguruko eztabaia dak bi maila dauzka. Alde batetik, bizi-modu neoliberalen, gorputzez aldatzea aukera bat da, beste hainbaten artean: eskaintzen zaigu lanez, herrialdez, bikotekidez aldatzeko aukera, amatasunaren adina edota amatasuna esperimintatzeko moduak aldatzea. Baina beste alde batetik, norberaren gorputzaren aldaketa da generoaren inguruan dagoen borrokarik handienetakoa. Gorputzaren aldeko borroka soberania lortzeko borroka da, zentzu horretan.

Eta gorputza bera borroka eremu.

Gorputzaren ikusgarritasuna da, aldi berean, telebista eta halako industrien esplotatzen duten baliabide ekonomiko inportante bat. Baina baita kolektibo feminista eta antisistema ugarik erabiltzen duten erreminta ere. Azken horiek ez dira publikoki onartuak eta kriminalizatuak dira, beren ekintza askatasuna babestuko duen legediaren faltan. Kasu horietan, gorputza bilakatzen da protestaren sinonimo. ■



ETBren esklusiba: Bizkaiko errauskailuko zaborrak piruleta bihurtzen dira

ETBren albistegiek baieztatu dutenez, Bizkaiko Zabalgari errauskailura eramandako hondakinak piruleta, goxoki eta erregaliz bihurtzen dira prozesuaren amaieran. Otsailaren 17an Zabalgari buruz egindako publizINFORMAZIOARI segida emanez aste honetan emititu duten ordubeteko dokumentalean eman dute esklusiba. Gainera, Zabalgari ekoizten dituen goxokiek argaltzen laguntzen dute, kolesterola jaitsi eta, helduengan, sexu-gogoa handitu, ETBren arabera. Inguruko bizilagunek “ondo izorratuta” daudela esaten dutelako atara dute ondorio hori.



ETBk Zabalgari buruz egindako erreportajea ikusi duten ikusleen osasuna ere asko hobetu da.

Iruñeko Ahal Duguren jarrera haur eskolen afera: azkenik posizionatu dira [konfetiak]

Hiri Buruzagian euskarazko bi haur eskola publiko berri irekitzearen inguruan daukan jarrera argitu du, azkenik, Oscar Fresón Rebelde Ahal Duguko bozeramaileak.

Beranduegi: Orduan, bi haur eskola berri bai ala ez?

Oscar Fresón: Gu ez gaude euskaldunon eskubideak bermatzearen kontra. Baina ezta euskara inposatzearen alde ere.

B: Ez duzu erantzun...

OF: Bueno, aber, zer da alde eta zer kontra? Zer da “bai” eta zer “ez”? Guk nahia-go dugu “berria” eta “zaharra” esan, “kasta” eta “jendea”. “Agian”, “beharbada” eta “auskalo” dira politika berriaren hitzak.



Oscar Fresón Rebelde, jotak kantatzen daukan abilezia erakusten

B: A-ha. Oraindik ez duzue Madrilgo deirik jaso nola jokatu esanez, ezta?

OF: Madril? Aizu, guk hemen erabakitzen dugu, e! Hemengoak gara, e-ra-bat hemengoak! Begira nola kantatzen du-dan jotica bat.



“Lehenengo eguneko ilusio berarekin entrenatzen ari naiz”. Hurrengo hauteskundeetarako sasoia mantendu nahi du Maneirok eta gogor hasi da lanean)

Maneiro al da Ciudadanosek behar duen aurrelaria?

Taldearen %82 kaleratu ostean, zaltetuen ilusioa berpiztuko duen izar bat fitxatu nahian dabil Ciudadanos. Albert Riveraren taldean argi dute ez direla edozerekin konformatuko: “Utikan mertzenarioak, guk nahi duguna kolore laranja bihotzez sentituko duen norbait da. Eskuin hegalean aritzeko, esan gabe doa”.

Diotenez euskal harrobi oparoan arrantatzeko asmotan lebilke Ciudadanos. Hartara, Gorka Maneiro dateke Riveraren ametsetako fitxaketa. “Oso positiboki baloratzen dugu aurkariz inguratuta jokatzeko daukan trebezia”, aitortu du alderdi laranjako buruak, “arean killer petoa da, begiradan nabaritzen zaio beteranoa iza-nagatik oraindik politikaz gose dela”.

Zurumurrua zabaldutakoan, UPyDk fite arrapostu du ez duela inor saltzeko asmorik: “Jokalari guztiak ezinbestekoak ditugu, mailari eusteko aukera apurak ez baditugu galdu nahi; hala ere, norbait Maneirinho-ren klausula ordaintzeko prest badago... Jokalariak berak zer nahi duen? Ba ez dakit, berari galdetu”, esan du, alderdiaren izenean, Gorka Maneirok.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA



Balio hezitzaileak sustatu nahi ditugu Argian, bide horretan ari den hezkuntza formala eta ez-formala lagun: haurren parte-hartzea eta erabakitze ahalmena aintzat hartzen duen hezkuntza, hezkidetzan, aniztasunean eta elkarbizitzan oinarritua. Komunitatea eta auzolana abiapuntu, denon artean belaunaldi askeak eta autonomoak heztea dugu amets.

MARTXOKO ZOZKETAK



Berdean hezi eta Haurren hiria
(4 liburu)

Txatxilipurdi elkarte
www.txatxilipurdi.com



Hazi Hezi aldizkariaren
harpidetza

Hik Hasi elkarte
www.hikhasi.eus/aldizkariaH.php



Urtxintxaren materiala
(4 material saski)

Urtxintxa Eskola
www.urtxintxaeskola.org



Perretxiko Zaindariak
(3 jolas)

ARGIA
www.argia.eus/denda

OTSAILEKO
SARITUAK

MUNDUKO JOLASAK: JOSE FELIX ZAMAKONA (MARKINA-XEMEIN), ASIER LAUZIRIKA (DONOSTIA), FRAY JUAN DE ZUMARRAGA INSTITUTUA (DURANGO), LALO ETXEBARRIA (HERNANI), ZURINE SARASOLA (DONOSTIA)
EUSKARAREN BERRESKURAPENA: GALDAKAOKO AEK (GALDAKAO), XABIER AGIRRE (TOPAS), AITOR ZUBEROGOITIA (DURANGO)
ASKAPENAKO SASKIA: NAHIKARI AYO (GETXO), OLATZ USABIAGA (DONOSTIA), JUAN JABIER ITURRALDE (IRUÑEA)
EUROPAKO HERRIEN MAPA: ONINTZE GURIDI (ARRASATE), ENEKO GORRI (MIARRITZE), MATXINTXU EUSKALTEGIA (BILBO)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi
nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com